


TOKIKOM

2021eko urria | 218. zenbakia

# aita-ama!



Hiru Bat

# 50 urte dantzan

LaTopadoraGureMerkatariakTxondorraLarrabetzun



# Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



**Bidali ALTA**

**747 406 561**  
telefono zenbakira

**Izan zaitez berriemate ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.**

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baseri Antzokian).

-  4 Eretxiak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  12 Gurean izan da... La Topadora musika taldea
-  14 Gaztea eta... Nahia Valle, kirol-monitorea
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Gure merkatariak
-  20 Hirubat dantza taldea: 50 urte
-  25 Zu argazkilari
-  26 Larrabetzuko eskola, Erasmus+ egitasmoan
-  28 Institutua
-  30 Txondorra piztu zen Larrabetzun
-  32 Emaus
-  33 Herbarioa... Zainbelarra
-  34 Teknologia... Plastikoa
-  35 Aikorrizketa
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



12 La Topadora musika taldea



30 Txondorra piztu zen Larrabetzun



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorriketan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.eus



**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea  
**Kolaboratzaileak:** Belen Gana, Iñaki Atxutegi, Joanes Camara, Iratxe Pirla, Idoia Andres, Deñe Rodriguez, Garbiñe Etxebarria, Xabier Diaz, Aitor Petralanda, Txiribita, Esti Odriozola eta Presumida Bravo

**Zuzentzaileak:** Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Estitxu Perez (688 782 642)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 8.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

## Erronka barria, ideia barriak

Urteetan esan izan dot euskara sustatzeko eta zabaltzeko orduan aldatzeko sasoia heldu dala. Lan haundia egin izan da azken urteetan, baina, nire ustetan, orain arte erabilitako formulak agortuta dagoz. Hezkuntza sisteman euskara erabat sartuta dago eta hizkuntzaren prestigioa begi-bistakoa da. Hala ere, ezagupena eta erabileraren artean arrakala baino amildegia da gure gazteen artean (eta ez daigun pentsatu nagusiak hobeak garenik). Harritzekoak dira (edo ez) D ereduaren ibilitako ikasle askok euskeraz berba egiteko dekiezan zailtasunak. Eta ez daigun aitatu egunero praktikea.

Zer gertatu da? Nire ustetan, euskara komunikatzeko tresna baino aprobatu beharreko asignatura bihurtu da hainbatentzat. Sarritan entzun izan dot "he aprobado uskera" (halaxe esanda, zin dagizuet) "joe, eske ez daukat nibel nahiko" eta bestelakoak. Matematikaren parean iminiten da hizkuntza. Hori, berez,

ez da txarra, baina alboko ondorioa argia da. Azterketa gaintu eta gero, ikasitakoa memoriatik erraz ezabatzen da.

Horrexegaitik poz haundia hartu neban Jaurlaritzako Kultura sailburua dan Bingen Zupiriaren berbak entzun nebazanean. Datuak oso argiak dira. Erabilera sustatu behar da eta horretarako aisialdia eta kulturgintza euskaldunak indartu behar dira. Euskara ikasgeletatik kanpo be egon behar da, ondo pasatzeko.

Egia da asignaturatik komunikazio tresnara pasatzeko jauzi haundia egin behar dala. Ikastetxeetan ikasten dana erraz ahazten da, derrigor ikasi behar dana sarritan maite ez dalako. Baina gustura eta ondo pasatzen entzun eta ikusten dana errazago lotuten da garunean.

Baina guzurrik ez geure buruari. Hizkuntza bat ikasteko, edozein hizkuntza, lan egin beharra dago. Baina ikasitako



**IÑAKI ATXUTEGI**  
Kazetaria

hizkuntza erabiltzeko eta maitatzeko, ikastea baino gehiago egin behar da.

Ez da zerotik hasi behar lanean. Hezkuntza sisteman euskara ikasi daben askok euskara daukie euren mundu sinbolikoan. Begi-bistakoa da Goazen telesaila fenomeno sozial ikaragarria dala gure gazteen artean. Sare sozialetan be osasuntsu dabil euskara. Baina ez da nahiko. Burua nekatu beharko dogu euskararen agi-tropean gabiltzanok eskaintza are erakargarriagoa egiteko. Galtzak bete lan daukagu.

Gure etxeko amomak mania batzuk zituen. Denak ez ditut gogoratzen, baina bat nabarmena zen: eskuak sarri-sarri garbitzen zituen. "Ondo garbitu eskuak diruaz zabiltzanean", agintzen zigun, "hortik txarrikeri asko kutsatzen dire eta". Darabilgun pandemiaz, amomaren mania ulertu dut, berak Europako gripe-pandemia igaro baitzuen.

Orain guk eskuak garbitu ez ezik, distantziak, musukoa, txertoak –bai ala ez– gabiltza. Birus txiki zatar honek bizitza hankaz gora ipini digu. Aurrera egiteko aholkuak eta iritziak entzun eta norberak erabakitzea dauka, baina

## Kutsakorra naiz, zara, da...



**BELEN GANA**  
Euskara-irakasle erretiratua

norberaren ongi-izateak ez du besteena baldintzatu behar.

Garbitzeari so, txertoa eta musukoa ipini edo kentzea... iritziak iritzi ulertzen ditut. Hala ere, ezin dut distantzia soziala mantentzearena eraman, ez kalekoa, ez mundukoa.

Lehen munduan-edo bizi garenok zelan tratatzen ditugu besteak? Non dago empatia? Non laguntasuna?

Dena dela, noraino da gure ardura? Gu ez gara errudunak, baina bai ondorioa sufritu behar dugunak. Aurrera lagunak!

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak  
Logopedia  
Podologia  
Klomasajak

clínica dental  
**ZANDUZ**  
hortz klinika

Txanduz etorbidea, 8 - Lorja | Antsoaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalsanduz.com | www.dentalsanduz.com

**tik tak**

EGUNEKO MENUA  
leherengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria **9€**

T: 94 454 55 55  
Bestorene 5, Behea  
48160 DERIO

**Ne-apaindegia**

M<sup>a</sup> Antonia Llodio TXP

Txanduz etorbidea, 5  
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

## Sondikak HAPOa onartu du

Sondikako Udalak jakinarazi duenez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) behin betiko onartu dute. "Oso plan bermatzailea da, Sondikaren herri-izaerari eusten dio eta bere oinarria da erabiltzen ez diren edo hirigintza-garapenik ez duten orubeak berreskuratzea", azaldu du Xabier Zubiaur alkateak. "Era berean, etxebizitza babestua (babes ofizialekoa eta tasatua) eraikitzeko aukera ematen du, gutxienez eraikitzen denaren % 50, betiere hiri-lurzoruan, ingurune naturala zainduz".

Ingurumenari dagokionez, planak "Asua ibaiaren ibar osoa babesten du, eta hirigintza-jarduketa bakoitzean ingurumen-irizpideak kontuan hartzea eskatzen

du, esaterako % 15 berdegune eta guneez libreetarako gordetzea. Halaber, energia aurrezteko jarraibideak ezartzen ditu, eta baimena ematen du energia berriztagarriak biltzeko sistemak ipintzeko". Gainera, esandakoaren arabera, planak aurreikusten du lokalak udal-erabilerarako uztea, bertan ikastaroak egiteko eta herriko elkarteek ere erabiltzeko. "Hazteko aukera, azken batean, garenetik abiatuta eta pertsonen ongizate erdigunean ipinita".

Aipatu moduan, planaren garapenean talde erredaktoreak, herritarrek, alderdi politikoek eta udalbatzak hartu dute parte.

## Bertso-saioa Lauroetan

Bertso-saioa Lauroetako San Migel ermitan, Loiu, izango da azaroaren 12an, iluntzeko 8etan. Bertan hurrengo bertsolari hauek arituko dira bat-batean: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Etxahun Lekue eta Xabi Paya.

## Azaroaren 7ra arte eman ahalko da izena Kameratoian

Urtero moduan, Kameratoia ikus-entzunezko rallya martxan ipini du Euskaltzaleen Topaguneak, Lekeitioko Euskal Zine bileraren baitan. Erronka da 36 ordutan antolatzaileek egunean bertan emandako gaiaren eta baldintzen arabera laburmetraia sortzea. Online izango da eta parte-hartzaileek eurek erabakiko dute grabazioa eta bestelako lanak non egin. Hamazortzitik hogeita hamabost urtera bitarteko lagunentzako lehiaketa da eta gehienez sei kideko taldeak osatu ahalko dira. Irabazleek 800 euro jasoko dituzte saritzat; bigarrenak, 400 euro; eta hirugarrenak, Lekeitioko aterpetxean gau bat ematea. Bestalde, Aitziber Garmendia aktoreak eta sortzaileak formakuntza-saioa emango die parte-hartzaileei. Izena emateko azken eguna azaroaren 7a izango da. Informazio gehiago [www.kameratoia.eus](http://www.kameratoia.eus) webgunean eskura daiteke.



# GABONETAKO LOTERIA

**aikor!**  
txorierriko airikaria

# 10066

## Loiuko Nagusien Etxea zabalik

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, urriaren hasieran zabaldu zen berriro herriko nagusien etxea. Egoitza itxita izan da COVID-19ak sortutako pandemiaren eraginez, eta udalak itxiera baliatu zuen egoitza erabat berritzeko. Diseinu berria jubilatuek eurek aukeratu dute eta, Begoñaren hitzetan, "egoitza zabala, berriztatua eta eroso da". Bestalde, tabernaren kudeaketa ere esleitu du udalak eta, hortaz, lantalde berria dago bertan.



## Larrabetzuko osoko bilkurak udal-webgunean ikusgai

Larrabetzuko Udalak jakinarazi duenez, beste urrats bat egin du udal-erakundea herritarrei hurbiltzeko. Horrela, bada, [www.larrabetzu.eus](http://www.larrabetzu.eus) webgunean esteka berria ipini dute herritarrek hileroko osoko bilkuren argitaratuko dira osoko bilkuren bideoa, gai-zerrenda eta dokumentazioa.

## Txorierrin gida-sistema ipiniko da ikusmen-urritasuna dutenentzat

a: Eusko Trenbide Sarea

Eusko Trenbide Sareak jakinarazi duenez, datozen hilabeteetan ikusmen-urritasuna duten pertsonentzako Navilens informazio-sistema ipiniko da Txorierrin, Bilboko metroaren 3. linean eta Bilboko tranbian. Pertsona guztiek eskuratzeko moduko seinale digitala da, denbora errealean. Urrunetik eguneratu daitezke eta 33 hizkuntzatan dago eskuragarri.

Sistema QR motako seinaletika berri batean dago oinarrituta. Kamera eta Internetarako konexioa dituen gailu mugikor baten bidez, seinaletika horrek



distantzia handi batetik irakurtzeko aukera ematen du, edozein argiztapen-baldintza dagoela eta edozein bazterretik. Sistema jartzeko lanak amaituta, erabiltzaileak Navilens doako aplikazioa deskargatu beharko du. Telefono mugikorrean instalatu ondoren, eta aplikazioa zabalik, erabiltzailea mugitzen dela antzeman daitezke QR kodigoak; beraz, ez da beharrezkoa telefonoa eskuan eramatea. Irakurtzeko gaitasuna 20 metrora artekoa da eta ez da beharrezkoa fokatzeari. Aplikazioa eskuragarri dago IOS eta Android sistematarako. Euskarazko informazioa lortzeko, AhoTTS aplikazioa deskargatu behar da; hori testua ahots bihurtzeko sistema da. Bestela, Text-to-Speech aplikazioa deskargatu daitezke, EHUko Aholab ikerketa-taldeak garatu duena. Bakarrik Androiderako dago eskuragarri.

Proba pilotua iazko abenduan hasi zen eta ONCEn oniritzia jaso zuen. "Teknologian oinarritutako gidatze-tresna bikaina da, baina hain teknologikoak ez izan arren itsuen autonomiarako eraginkorrak eta beharrezkoak diren beste baliabide batzuekin batera bizi beharko du".

Kontratua Neosistec enpresari esleitu diote eta hura 199.210 eurokoa da. Lau hilabeteko epea ezarri da jartze-lanak egiteko eta kontratuaren barruan dago sistema 12 hilabeteen mantentzea.

**AURREGOITI JATETXEA**  
Laurtoia etorbidea, 27  
48180 Lolu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
[restauranteaurregoiti.com](http://restauranteaurregoiti.com)

**elekma**  
LARRABETZUEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXARRAK  
Izherengo merkitak • Prezioak onenak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Telurri etorbidea, 25-3.N • 48180 Lolu  
T: 944 559 232  
[www.elekma.es](http://www.elekma.es)

Centro Dental  
**Txorierrri**

**Rocío Astorkia Bordegaray**  
Col. nº 48000759

**Ainhoa Rodríguez Mella**  
Col. nº 48001337

**Igone Nieto Hernández**  
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885  
[www.cdtxorierrri.es](http://www.cdtxorierrri.es)

**ORTODONCIA21**

**LOREGARBI** GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikatzak, orokorrean  
Asatzeko konsumatzaileak  
Mantentze garbi-ikatzak  
Bulgarrak eta lokalkak  
Oliniko asmatzeko garbitzaileak  
Ikastetxeak  
Zahar hileria

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekoa  
48160 DERIO (Bizkaia)  
[loregarbi@euskaiket.net](mailto:loregarbi@euskaiket.net)

Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93

**ELORRIETA INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**



## Deriok 1,2 milioi euro zuzenduko ditu bost proiektutara

*a: Derioko udala*

Derioko osoko bilkurak aurrekontu-aldaketa onartu du bost proiektu egin ahal izateko. Proiektuek orotara 1,2 milioi euroko aurrekontua izango dute eta, Esther Apraiz alkateak adierazi duenez, estrategikoak dira "derioztarren bizi-kalitatea hobetzeko, mugikortasuna eta jasangarritasuna errazteko eta zerbitzuak, kirol-ekipamenduak eta herriko azpiegiturak hobetzeko. Inbertsio hauen bidez bultzatuko dugu udalerriko bizi-kalitatea".

Horrela, bada, udalak skate-park bat eraikiko du Gazianeko pisten ondoan eta horretarako 50.000 euro ipiniko ditu. Umeen Kontseiluaren laguntzarekin diseinatutako proiektua da eta lanak hil honetan bertan hasiko dira. Era berean, kiroldegi ondoko futbol-pistak estali egingo dira. Egitasmoak 580.000 euroko aurrekontua du eta ahalbidetuko du, klimatologiaz arduratu gabe kirola egin ahal izateaz gainera, herriko elkarteek edo taldeek bertan beste kirol-jarduera batzuk ere egin ahal izatea. Gainera, baliteke etorkizunean estalkian eguzki-plakak ipintzea.

Bestalde, Herriko Plazaren eta tren-geltokiaren inguruko sarbideak urbanizatuko dira. Azaldutakoaren arabera, geltokirako sarbidea hobetzeko, eskailetako eta arrapaletako desnibelak eta gabeziak egokituko dira eta irisgarritasuna

bermatuko da inguruan. Horri lotuta, gehienez % 8ko malda izango duten arrapala bi eraikiko dira Euskalherria kalearen inguruetan. Udalak 85.000 euro ipiniko ditu lanotarako. Halaber, 180.000 euro zuzenduko dira hobetzera, alde batetik, Tabernabarriko sarbidea, eta bestetik, auzo horren eta Mungiako Trenbide Zaharreko Bide Berdearen arteko lotura. Zehatz-mehatz, oinezkoentzako bidea egingo da baserrietatik eta familia bakarreko etxebizitzetatik autobus-geltokietara joateko. Era berean, 630 metroko oinezkoentzako ibilbidea atonduko da,

eta trafikoa lasaitu, bide-segurtasuna bermatzeko. Udalaren hitzetan, lanoi esker oinezkoentzako lotura segurua egongo da auzoaren eta Mungiako tren zaharra pasatzen zen bide berdearen artean.

Azkenik, inbertsio handiena, 400.000 euro hain zuzen ere, 2023+ Bizikleta Planean egingo du udalak. Egitasmoaren helburua da herrigunea bizikletan ibiltzeko egokitzea. Horretarako, ingurumenaren ikuspegitik baketsua den eremu bat atonduko da. Oinezkoek eta txirindulariek lehentasuna izango dute eremu horretan, eta ibilgailuen abiadura mugatuko da. Gunea atonduz joateko, hainbat lan egingo dira datozen hilabeteetan. Hala, udalak jakinarazi moduan, herrigunera sartzeko zenbait puntu fisiko edo "ateak" seinaleztatuko dira oinezkoek eta txirindulariek lehentasuna dutela adierazteko. Halaber, bidegorrien sarea osatuko da: Mungialde etorbidearen eta Butroi kalearen arteko bidegorritzearen inguruko bidegorriak luzatu eta lotuko dira, eta beste bidegorri bat egingo da Aldekone plazatik Erremerteriaraino; gainera, beste bidegorri bi atonduko dira azken leku horiek Ganbe Goikoarekin lotzeko, eta Aldekone plazaren ingurua eta autobus-geltokiak egokituko dira. Bestalde, gaur egungo bizikleta-bideak seinaleztatu eta hobetuko dira segurtasuna areagotzeko eta bizikletan ibiltzea sustatzeko, eta bizikleta-bideen eta tren-geltokiaren arteko lotura hobetuko da. Bizikletak aparkatzeko gunea ere ipiniko da tren-geltokian eta eskolan.

The logo for 'enviser' features a large green checkmark above the word 'enviser' in a bold, purple, sans-serif font.

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

## ‘Gizonak parekidetasunerantz’ tailerra Larrabetzun

Tailerra azaroaren 11n, 17:00etatik 20:00etara, egingo da Anguleri kultur etxean, eta, beste batzuen artean, maskulinitate-eredu tradizionalak aztertuko dira bertan. Izena ematea Anguleri kultur etxean bertan egin daiteke, liburutegia@larrabetzu.eus helbide elektronikora idatzita edo 944 558 271 telefono-zenbakira deituta. Hiruki Larroxa kooperatibak zuzenduko du formazio-tailerrak.



a: Albertia (wklcdn.com)

## Irteerak Gailur mendi-taldearen eskutik

Ohi moduan, Gailur Lezamako mendi-taldeak irteera bi antolatu ditu datorren hilerako. Horrela, azaroaren 6an Entziako mendilerroa (Opakuako mendatea) joango dira, eta hilaren 21ean, Albertiara (Legutio). Azken mendi-irteera hori eskolako gurasoen elkarrearekin batera antolatu dute. Informazio gehiagorako, mezua idatzi daiteke gailurmt@outlook.com helbide elektronikora.



Derioko Udalak jakinarazi duenez, hobekuntzak egin dira Urbasa kalean, Larrabari ibilbidean, Mungialde Etorbidearen atzealdean eta Herriko Plazaren eta Gaztelumendi Plazaren inguruan. Hiru helburu izan dituzte: energia-eraginkortasuna hobetzea, berotegi-efektuko gasak murriztea eta, argiztapena handituta, bizilagunen segurtasuna bermatzea. Zehatz-mehatz, 10 argi berri ipini dira, eta 34 argi aldatu dira beren ordez LED bonbilak jartzeko. Udalak 47.668 euroko inbertsioa egin du, eta, lanetarako, 2.700 euroko dirulaguntza jaso du Energiaren Euskal Erakundetik.

Udalak gogora ekarri du argiak modernizatzeko plana duela hiru urte hasi zuela. Harrezkero 500 argi baino gehiago ordezkatu ditu herriko kaleetan. “Energia-kontsumoari dagokionez, % 50-70 aurrezteaz gainera, Derioko hainbat lekutan argi-kantitate eta -kalitate handiagoa dago. Zalantza barik, hori

## Zenbait lan eg

lagungarria da kalean segurtasun handiagoa egoteko”, esan du Esther Apraiz Derioko alkateak.

### Aire zabaleko gimnasioa

Bestalde, nagusiek aire zabalean gimnasia egiteko gunea dago Derioko Uribe parkean eta, udalak jakinarazi duenez, lau aparatu berri ipini dira bertan. “Erabiltzaileen egoera fisikoa hobetzeaz gain, aisialdirako eta paseorako gunehori gizarte-harremanak lantzeko topagunea ere izango da”. Udalak 5.421 euro jarri ditu aparatu berrietan, eta orotara gimnasia egiteko bederatzi makina daude.

Diskoa, kulunka eta stepa dituen multzoa azpimarratu daiteke makina berrien artean. Multzo hori egokia da oreka hobetzeko eta beheko gorputz-



## Ur-parkea eraikitzen dabilta Loion

Josu Andoni Begoña Loiuako alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, irailaren azken astean hasi ziren herriko ur-parkea eraikitzeko lanak. Egitasmoak herritarren eskaerari erantzuna ematen dio eta udaletxearen atzeko landetan kokatuko da. Begoñaren hitzetan, Splashpark modernoa izango

da, inklusiboa, adin guztientzako lagunentzat, segurua eta dibertigarria, eta hainbat ur-jolas eta solariuma edukiko ditu. “Oso leku erakargarria izango da loiuztarrentzat eta, era berean, kanpoko familiak ere erakarriko ditu. Udalerrria girotu eta suspertuko du, eta familia-giroa sortu”.





**HARATEGIA**  
**ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO



**ama**  
**taberna 3**

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)  
94 655 93 69



**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostirala: 9:00-19:00  
Laburunbata: 8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
94 4520419



Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WiFi gunea



**Carrefour**  
express

ORDUTEGIA  
Astelehenetik ostiralez arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatean  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO



**ERREKA**  
**ONDO**  
**ETXEA**

Eguneko menua, esteburuko menu berezia, karta,  
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

## in dira Derion

atalak lantzeko. Era berean, sorbaldia lantzeko behatz-eskailera txiki bat dago zirkuituan, eta eskumuturra eta besaurrea lantzeko malguki bat.

Calistenia-guneko lurzorua berritzeko lanak ere amaitu egin dira. Eremuak 84 metro koadroko azalera du eta lanetan 6.606 euro ipinidira. Batez ere gazteentzako gunea da eta hainbat altueratako arkuek, barra sinpleek eta barra paraleloek osatuta dago, erabiltzaileek indarra eta ahalmen kardiobaskularra landu ditzaten.

### Irisgarritasuna

Azkenik, Herriko Plazaren perimetria errematatu da, egoera txarrean zegoen jatorrizko zoladura ordezkatu da eta horma indartu. Era berean, arrapala ipini da ONCEko kioskotik plazaraino. Lanetan

ia 159.000 euroko inbertsioa egin da: Bizkaiko Foru Aldundiak 27.047 euroko dirulaguntza eman du, eta udalak 131.778 euro ipini ditu.

Esther Apraiz Derioko alkatearen hitzetan, "gune horretatik derioztar asko pasatzen dira eta proiektuari esker modu integralean hobetu dugu gunea. Oinezkoei lehenetsia ematea eta haien segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzea da benetan derioztarren bizi-kalitatea hobetzen duena, eta horixe egin dugu Herriko Plazan".

Azaldu moduan, Herriko Plaza duela 30 urte baino gehiago urbanizatu zen eta, denborak eragindako kalteak dirrela eta, udalak 2018an erabaki zuen plaza birmoldatzea. Birmoldatze-lanak fase bitan egin dira: lehenengo fasean, plazaren zoladura hobetu zen (1.000 metro koadro inguru); eta bigarren fasean, aurreko lerroetan esandako lanak egin dira.


### WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

**Mari Paz Santana** da urriko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birezko bazkaria jasoko du sarizat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



## Suteak prebenitzeko kanpaina zabalduko dute suhiltzaileek Derion, azaroaren 21ean



Foru Aldundiko suhiltzaileek kanpaina bat zabalduko dute Bizkaiko zenbait herritan, suteak prebenitzeko. Suhiltzaileek suteen aurkako segurtasun-eta autobabes-oinarriak zabalduko dizkiete bizkaitar guztiei eta, bereziki, haur eta gazteei, modu ludiko eta didaktikoan: hitzaldiak, adibide praktikoak, ginkana-tailerrak... Derion azaroaren 21ean egongo dira. Gainera, Santurtzi, Igorre eta Le-

keitio ere bisitatuko dituzte.

Suhiltzaile-zerbitzuetako profesionalak egunero egiaztatzen dutenez, herritarrek gaztetan oinarritzko kontzeptu batzuk bereganatuz gero, suterik ohikoenak eta heriotza gehien eragiten dituztenak saihestu litezke, eta biktimak salbatu. "Egunero gertatzen dira suteak, baina ia beti saihestu daitezke. Larrialdirik onena inoiz gertatzen ez dena da," azpimarratu

dute Aldundiko suhiltzaileek. Horiek edukiontzi eramangarria eta zabalgarria eta autobonba-kamioi bat erabiliko dituzte, kanpainaren berri emateko.

Kanpaina Europa Batzordearen 'Be Fire safe at School' proiektuaren barruan dago. Horrek Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat suteen kontrako prestakuntza diseinatzea du helburu. Bizkaiaz gainera, Irlandak, Finlandiak, Alemaniak, Belgikak, Danimarkak eta Lituaniak ere hartzen dute parte egitasmoan. Bizkaiko hogeitxetxek baino gehiagok eskatu dute doako tresna didaktiko hori. Webgune honetan dago eskuragarri: [www.bfiresafeatschool.eu](http://www.bfiresafeatschool.eu). Proiektuan interesa duten irakasleek Bizkaiko Foru Aldundiaren Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzura jo dezakete posta elektronikoz: [prevencion.incendios@bizkaia.eus](mailto:prevencion.incendios@bizkaia.eus).

### Kea

Bizkaiko Foru Aldundiaren Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuak 3.012 esku-hartze egin zituen 2020an; horietatik 1.362 suteak izan ziren (% 23); gehienak hiriko su txikiak, etxebizitzetan gertatutakoak. Kea da etxeko suteetako heriotza-kausa nagusia. Zerbitzua duela 50 urte sortu zen.

### HERRIKO KIROLARIAK OMENDU DITU LARRABETZUK .-

Kirolbilguneak antolatuta, urriaren hasieran, larrabetzuarrek esker ona adierazi zieten aurreko denboraldian nabarmendu ziren herriko hainbat kirolariri. Kirolarien artean hauek izan ziren: Patxi Suarez eta Jose Centeno, gurpildun aulkiko saskibaloiko ligaren txapeldunak; Amaia Ginea, bikeyoringeko txapelduna; Beñat Lekue, Bizkaiko Aizkolarien Txapelketaren garailea; Txokoan emakume pilotarien elkarte; Uritarra futbol-taldea; Jone Etxebarria, triatloilaria; Itxaso Artega, Athleticeko jokalaria; eta Mikel Artetxe txirrindularia. Kirolbilgunea sortu berri dute Larrabetzuko kirol-elkartek, udalak eta herritarrek, besteak beste, kirol-mota guztiak sustatzeko eta herriko jarduerak koordinatzeko.



## Ekintzak Zamudion, sanmartinak direla eta

Datozen egunetarako, eta sanmartinen harira, hainbat ekintza antolatu dituzte Zamudion. Besteak beste, musika, bertso-saioa, ikuskizunak, pilota-partidak eta umeentzako puzgarriak izango dira.

### Azaroak 6, zapatua

-10:00 Nekazamudio

-12:30 Bertso-saioa, Agirre Lehendakaria plazako karpan. Bertsolaria: Onintza Enbeita.

### Azaroak 11, eguna. Mozorro Eguna

-19:00 Txupinazoa eta pregoia, Hiru Bat dantza-taldearen eskutik. Karameluak banatzea.

-20:00 Kontzertua: Roberto Urrutia eta bere mariatxiak, Agirre Lehendakaria plazako karpan.

### Azaroak 12, barikua

-19:30 Bakarrizketa: Oihan Vega, Agirre Lehendakaria plazako karpan.

-21:30: Kontzertuak: Mixerabliak + Modus Operandi, Agirre Lehendakaria plazako karpan.

### Azaroak 13, zapatua

-11:00 Umeentzako puzgarriak, frontoian.

-16:00 Umeentzako puzgarriak, frontoian.

-19:00 Kontzertua: The Old Timey String Band, Agirre Lehendakaria plazako karpan.

-21:30 Kontzertuak: Matxinada + Urtz, Agirre Lehendakaria plazako karpan.

### Azaroak 14, domeka

-11:30 Pilota-partidak, Arbolantxa pilota elkarteak antolatuak, frontoian.

-18:00 Ikuskizuna: Deabru Beltzak, Agirre Lehendakaria plazako karpan.



## Gimnasioa eta gastro taberna, Larrondon


Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean ezagutzera eman duen moduan, udalak Larrondoko bizilagunei galdetu die auzoko udal-lokaletan zein ekipamendu atontzea nahi zuten, eta herri-galdeketa parte hartu dutenen % 82k hauek aukeratu dituzte: gimnasioa, erabilera anitzeko gela/gaztegunea eta denda/gastro taberna. Galdeketa Larrondoko bizilagunen % 35ek hartu dute parte. Bestalde, Begoñak gogora ekarri du Larrondon ere beste proiektu batzuk ipini direla martxan, hala nola kaleko argiak hobetzea, zentro zibikoak berritzea eta kirol-guneak hobetzea.

## Azaroaren 26an amaituko da Txorierriko Ipuin Lehiaketan parte hartzeko epea

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Ipuin Lehiaketaren 24. edizioa antolatu du. Gaia librea dela, lanek euskaraz izan beharko dute, eta ezin izango dira aurretik argitaratuta egon. Ipuinak azaroaren 26ra arte aurkeztu ahaliko dira Mankomunitatean bertan, edo Txorierriko liburategietan. Lehiaketan herritar guztiek hartu ahaliko dute parte, dagokien kategoriaren arabera: A kategoria, 7 urtera arte; B kategoria, 8 eta 9 urtekoak; C kategoria, 10 eta 11 urtekoak; D kategoria, 12 urtetik 15 urtera bitartekoak; eta E kategoria, 16 urtetik gorakoak. Parte-hartzaileek bakarrik lan bat aurkeztu ahaliko

dute. Bestalde, lanek gehienez lau orrialde izango dituzte.

Ipuinak gutunazal handi batean aurkeztuko dira eta kanpoko aldean kategoria eta udalerria idatziko dira. Gutunazal barruan ipuina eta beste gutunazal txikiago bat sartuko dira. Gutun-azal txikiaren barruan idatziko dira izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa. Lanak aukeratzeko orduan, epaimahaiak kontuan hartuko ditu irudimena, kreatibitatea eta presentazioa. Sari bat banatuko da kategoria bakoitzeko. Gainera, bi akzesit emango dira kategoriako eta herriko. Aldez aurretik jakinaraziko da sariak noiz eta non banatuko diren.



# "Gure gustuko musika egingo dugu berriro, mugarik gabe"

LA TOPADORA | musika taldea

Vendettak izugarritzko arrakasta izan zuen, baina taldea bertan behera uztea erabaki zuten. Bere taldekide gehienak, aldiz, beste proiektu batean murgildu dira, La Topadora, eta bere lehenedabiziko diskoa, *Voy con todo*, Baserri Antzokian aurkeztu dute urrian. Enrikko Rubiñosek, Ruben Antonek, Javier Etxeberriak eta Luisillo Kalandrakak, gehi Gaizka Otsoak, osatzen dute taldea.

*t: Gaizka Eguzkitza*

## **Talde berria, ilusio berriak. Zer da La Topadora?**

Noski, talde berri batean sartzen zarenean, ilusioz gainezka zabilta: musika egin, zabaldu eta jendearengana iristearen ilusioarekin. Zer da La Topadora? Bost musikariren ezinegonetik sortutako taldea da. Lagunak gara eta oso ilusionatuta gaude, munduko agertoki guztiak zapaltzeko irrikan gabiltza.

## **Diskoaren izena, *Voy con todo*, oso adierazgarria da. Gogotsu hasi zarete...**

Ezinbestekoa da horrelako mugida batean sartzean dena ematea, bai. Berri Txarrak taldeak zioen bezala, "pasioa da hemen exijitzea zilegi den gutxieneko hori". Beraz, *voy con todo*.

## **Izena bitxia da. Azalduko duzue jatorria?**

"La topadora", La Skandalosa Tripulación talde argentinarraren abeslariak, Cebok, konposatutako kanta da. Vende-

ttarekin Argentinatik egin genuen azken biran, talde zoragarri horrekin egin genuen topo eta sekulako giro ona sortu zen gure artean. Euska Herrira bueltatu ginenean, Cebo gaixotu zela esan ziguten, minbiziak jota. Eta handik gutxira zendu zen. Izugarritzko makilakada izan zen denontzako. Bere taldekideek ordenagailuan zeuzkan editatu gabeko kantak argitaratzea erabaki zuten, bere omenez disko bat egiteko. Vendettari, "La topadora" kantua grabatzera gonbidatu gintuzten, eta guk gogotsu grabatu genuen. Vendetta amaitutakoan, proiektu honentzako izen bila genbiltzala, bere omenez La Topadora jartzea bururatu zitzaigun.

## **Hainbat estilo jorratzen dituzue: rock, ska, erritmo latindarrak, runba... Zelan moldatzen zarete?**

Beti gustatu izan zaigu hainbat estilo uztartzea. Gure ustez, nahasketa horiek taldearen musika aberastu egiten dute; beraz, gustuko ditugu.



## **Taldekideok Vendetta eta Skalariak taldeetatik zatozte. Zergatik aldatu? Ez da seguruagoa finkatuta dagoen talde batean jarraitzea?**

Talde bakoitzak bere izaera eta bere ibilbidea du. Noski, guretzako erosoagoa zen Vendetta izenarekin jarraitzea, baina ez litzateke Vendetta izango, eta proiektu berria indargabetuko litzateke. Hortaz, indar hartu dugu eta beste mugida batean sartzea egokiagoa iruditu zaigu.

## **Uste duzue La Topadora taldeak Vendetta eta Skalariak taldeetako ibilbideari jarraitzen diola? Ala erabat ezberdina da? Zaleak berberak izango dira?**

*Lagunak gara eta oso ilusionatuta gaude, munduko agertoki guztiak zapaltzeko irrikan gabiltza.*

*"Egiten dugun estilo-nahasketak taldearen musika aberastu egiten dute; beraz, gustuko dugu"*

*"Gogoia dugu aurreko hilabeteetako kontzertuak berriro bizitzeko: zutik, izerditan eta parranda bizian"*



Hori ezin da inoiz jakin. Argi dugun gauza bakarra hauxe da: gure gustuko musika egingo dugula berriro, orain ere, mugarik gabe.

**Kantaren bat ere euskaraz abestuko duzue, ezta?**

Bai, lehenengo diskoan badugu abesti bat, Ernesto Prat idazleak idatzitako testuarekin. Ez dugu kanta gehiago euskaraz egitea baztertzen, zergatik ez? Lehen esan bezala, mugarik gabe!

**Koronabirusaren krisia gainditzen gabiltza apurka-apurka. Garai ona da talde berria sortzeko?**

Pandemiak guri bete-betea eman zigun muturrean. Lehendabiziko kontzer-

tuan, 2020ko martxoaren ostegun batean, Bilboko Kafe Antzokia lehertu genuen eta hurrengo astean denok ginen etxean giltzapean. Udako aurkezpen bira zapuztu egin zitzaigun. Baina tira, gustuko bidean, maldarik ez!

**Areto txiki eta ertainetatik zabilta diskoa aurkezten. Musikarientzat, agertoki politak izango dira, publikoa gertu-gertu duzuelako, eta hori azken bolada honetan faltan botako duzuelako. Nolako harrera izan duzue?**

Bai, polita da areto txikietan aritzea, baina ez publikoa eserita egonda. Ez dago gaizki, baina beraien izerdia sentitzeko gogoia ere badugu. Orain arteko

kontzertuetan harrera oso ona izan dugu. Jendeari ahal zen heinean gozaten ikusten zitzaion, eta guk ume txikiek bezala gozatu dugu. Gogoia dugu aurreko hilabeteetako Sarako edo Urruñako bezalako kontzertuak berriro bizitzeko: zutik, izerditan eta parranda bizian.

**Jendeak musika zuzenean entzuteko gogoia du? Ala apur bat beldurtuta dabil? Eta musikariok, nolako jarrera adierazten duzue?**

Guztiok dugu amesgaizto hau atzean uzteko gogoia: normaltasunera bueltatzea, parrandan ibiltzea... Kartutxo asko ditugu pilatuta, erretzeko esperoan; eta erreko ditugu, bai.

- Plater konbinatuak  
- Ogitartekoak  
- Kaxolak

**BIZKARGI KAFETEGIA**  
Euskal Herria Kalea  
48160 - Derio (Bizkaia)  
94 454 16 55

**RADIO TAXI FEMADE** *Zure taxi, Teoriarikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h **94 480 09 09**

**ERRESERBAK:**  
[www.taxisaeropuertobilbao.com](http://www.taxisaeropuertobilbao.com)

**DESKARGATU APP-A**  
**TAXI FEMADE**

# “'Kañeroa' naiz: orain denak emanda ez banabil, noiz, bada?”

t: Itxaso Marina Ondarrea

**Batxilergoa amaitu, eta kirol gradu bat egin zenuen; Haur Hezkuntzan irakaslea izateko ikasten zabilta orain...**

Ez nuen oso argi batxilergoaren ondoren zer egin, eta gizarte- eta kirol-animazioa asko gustatzen zaidanez, erabaki nuen kirol gradu bat egitea. Ikasketa horiek amaituta ere ez nekien oso ondo lan-ibilbidea nora zuzendu, eta umeak asko gustatzen zaizkidanez, Haur Hezkuntzako irakaslea izateko ikasketak egitea pentsatu nuen. Ikasturtea hasi berria den arren, esan dezaket orain arte ikusitakoa eta ikasitakoa asko gustatzen zaidala.

**Ikasteaz gainera, Bilboko gimnasio batean egiten duzu lan. Gimnasio hori bakarrik emakumeentzat da, zein da arrazoia?**

Gimnasioa duela urtebete zabaldu zen. Zuzendaria gizonezkoa da, eta gainerako guztiak, emakumeak. Askotan, muskulazio-geletako erabiltzaile gehienak gizonezkoak dira eta gerta daiteke emakumezkoak eroso ez sentitzea. Gimnasio honen helburua da emakumeak animatzea beren-beregi haientzat diren kirol-jarduerak egitera, eta lotsa-edo galdu dezatela. Maiatzean hasi nintzen bertan lanean eta oso pozik nago. Besteak beste, funka, barrea (gluteoak, sabelalde eta hankak lantzea), yoga eta pilatesa egiten ditugu.

**Zumba-monitore ere ibilia zara, ezta?**

Bai, Gorlizen izan nintzen urte bian. Graduaren lehen ikasturtean hasten da praktikak egiten eta ni dantza munduari lotuta nagoenez, bada, eskaini zidaten zumba-saioak ematea. Hasieran apur bat lotsatuta-edo nengoen, baina gero esperientzia hartuz joaten da.

**Zein da dantzekin duzun harremana?**

Egia esan, ez dut inoiz serio-serio dantzatu; hau da, ez naiz inoiz akademia batera joan. Bospasei urte nituela, udalak antolatutako dantza modernoaren ikastaroan eman nuen izena eta institutuan egonda ere jarraitu nuen dantzan. Baina

NAHIA VALLE | kirol-monitore eta HHko irakaslegia

Sondikoztarrak 20 urte ditu eta, Haur Hezkuntzako irakaslea izateko ikasketak egiten ibiltzeaz gainera, kirol-monitore da Bilboko gimnasio batean. Bere lanaren eta itxaropenen berri emango digu hurrengo lerroetan.



lagunak apurka-apurka uzten joan ziren, eta azkenean nik ere bai. Handik urtebetera dantzatzeko gogoia piztu zitzaidan berriro eta Amaia Urkijorekin egin nuen topo, nire irakasle kutuna dena. Dantza urbanoa lantzen nuen berarekin eta hasi nintzen apur bat serioagoa dantzatzeko, lehiaketetara joaten ginen eta. Egiten duena gustatzeaz gainera, Amaiak dantzariak motibatzen ditu eta, nire kasuan, asko animatu ninduen zenbait arlotan saiatzera. Hala ere, oso gustura egon arren, iaz utzi behar izan nuen, ez nuelako denetarako denborarik.

#### Penatuta?

Bai, dantzatzea liberazioa delako: arazoak alde batera utzi, eta arreta osoa dantzan ipintzen duzu. Gustatzen zaizuna egiten duzu, eta, gainera, zure zaletasuna ere baduen jendearekin. Baina gaur egun ez dut dantzatzeari berriro ekiteko denborarik... Bueno, lanean ere dantza egiten dut, bi ordu-edo astean, eta horrek nolabait arintzen dit bihotza... Bestalde, lasaitasun apur bat ere ondo datorkit (kar-kar).

#### Zelan zabilta lan aldetik?

Lan-eskaintza handia dago gimnasioetan, bajak-eta egiteko. Hori bai, zaila da gimnasio berean zortzi orduko lanaldia izatea: normalean, ordu batzuk egiten dira leku batean, beste ordu batzuk, beste batean... Nik arratsaldean egiten dut lan eta momentuz ez dut arazorik lana eta ikasketak uztartzeko.

#### Monitore "kañeroa" zara?

Bai! Gustatzen zait ikasleak "estutzea". Batzuetan kezkatzen dira, baina denetarik dago: gehiago eskatzen dutenak eta erlaxatzeko eskatzen dizutenak. Gainera, 20 urterekin dena emanda ez banabil, noiz ibiliko naiz, bada? (kar-kar).

#### Bereziki zaintzen duzu elikadura?

Ez, eta zaindu beharko nuke, oso-oso txarto elikatzen ez banaiz ere.

**Konfinamenduan modan ipini ziren kirola edo ariketa fisikoa egiteko bideak. Arriskutsua izan daiteke ariketak nork bere kabuz egitea?**

Ez dut uste arriskutsua denik, alde batetik, bideoan agertzen den pertsona aditua delako eta ez digulako esango zerbait kaltegarria egiteko, eta bestetik, ziur nagoelako minik izanez gero ariketa egiteari utziko diogula. Hala ere, baliteke ariketa behar moduan ez egitea eta guk pentsatzea ondo egiten gabiltzala.

*"Askoz hobea da zuzeneko saioa egitea, tratu hurbilagatik eta motibazioagatik"*

Nire ustez, askoz hobea da zuzeneko saioa egitea, tratu hurbilagatik eta motibazioagatik.

#### Lagundu dizue "moda" horrek?

Bai, orain gimnasioetara jende gehiago hurbiltzen delako. Nolanahi ere, pandemiaren hasieran jende asko beldurtuta ibili zen: areto txiki batera sartuko naiz beste pertsona batzuekin, izerdia...

#### Zuek ere lan egiteko modu berrietara egokitu beharko zenukete.

Pandemia hasi zenean Gorlizen nengo zumba-monitore. Astean bitan eskola-saioa grabatzen nuen eta zuzendariari bidaltzen nion ikasleen artean zabaltzeko. Gehieneko edukierarena asko igarri dugu, eta batez ere maskara jantzita lan egin behar izatea. Ariketa biziak

*"Gimnasioan jarraitu nahiko nuke, ikasketak amaitu eta oposizioak egin"*

egiten dituzunean, airea, oxigenoa... falta zaizu askotan; bada, pentsa ezazue maskara jantzita! Batez ere hasieran, gero ohitura hartuz joaten zara... Beste aldetik, materiala eta erabiltzen den guttia desinfektatu behar da. Horri lotuta konturatu naiz, beharbada, lehen ere sarritan desinfektatu beharko zela, baina ez orain bezainbeste!

#### Zer nolako planak dituzu?

Gaur egun nagoen gimnasioan jarraitu nahiko nuke, ikasketak amaitu, oposizioak egin eta ikastetxe publiko batean lan egin. Ahal dela, hezkuntza eta gimnasioa uztartuko nituzke. Ez dut neure burua ikusten bakarrik kirol-monitore moduan; izan ere, ordu asko eginez gero, neketsua izan daiteke.



**POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP.**  
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional  
Lantze Hesketa eta Bigarren Hezikuntzarako Ikastetxea

Uztzagale Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net  
48100 - DEPIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

**BATXILERGOA**  
• Zientziak Batxilergoa

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**  
• Mekanizazio Teknikari

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**  
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari  
• Produktzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari  
• Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari  
• Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari  
• Salmenten eta Merkataritza Esperuen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari  
• Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN ETA ADAPTATURA SAIA | DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS

ikastolenkidea | HETEL |

**40 urte, milaka txori**



## Nerabeak eta drogak: familiak badu zeresana

Sarritan entzuten dugu gazteek asko dakitela drogen inguruan eta informazio guztia dutela eskura; baina horrela izanda ere, familientzat etxeko gazteek drogekin duten jarrera beti izan da oso kezagarria. Artikulu honen asmoa ez da gidaliburu bat izatea, arazoak saihesteko ideia batzuk ematea baizik.

### Zergatik dira horren erakargarriak haientzat?

Ezin dugu arrazoi bakar bati buruz hitz egin, gure gazteak, nerabezaroan, hainbat substantzia kontsumitzera bultzatzen dituzten adinari lotutako berezitasun batzuei buruz baizik. Etapa honetan, norberaren nortasuna bilatzeko joera dute, eta berretsi behar horrek gurasoengandik aldentzera eta beren koadrilarekin lotura sendoagoa izatera eramaten ditu. Jada ez dira argudio sinpleekin konformatzen, askoz informazio gehiago jasotzen dute, ikuspuntu gehiago aurkitzen dituzte eta euren arrazoinamendu mailak

ez du zerikusirik aurreko etapetan izandakoarekin. Baina, era berean, oso kalteberak dira drogen ondorioekiko; izan ere, epe motzera portaera, familia edo arazo akademikoak eragiteaz gain, epe luzera euren etorkizuna baldintzatuko duten ondorioak jasan ditzakete.

### Zer egin dezakegu familiek horren aurrean?

Hainbat gako daude erreferentzia gisa erabil ditzakegunak. Horiei babes-faktoreak deitzen diegu. Arrisku egoerei arrakastaz aurre egiteko balio duten ezaugarri pertsonal eta sozialak dira, eta horietan familiok zerikusi handia dugu.

- Substantziei buruzko informazio erreala, egiaztatua eta fidagarria izatea, eta informazio hori adinaren eta dagoen unearen arabera egokitzea.
- Bizitzarako oso garrantzitsuak diren beste faktore batzuk autoestimua eta euren buruarekiko konfiantza dira. Horrela, erabakiak hartzeko orduan

koadrilak izan dezakeen presioari aurre eginez, gai izango dira modu inpulsiboan jokatu gabe, arriskuak aurreikusteko eta alternatibak bilatzeko.

- Kontsumoak saihesteko oso garrantzitsuak dira, batetik, ikasgelan gustura sentitzea eta, bestetik, bizitza osasungarriarako baliabideak eta aukerak dituen herri edo auzo batean bizitzea.

- Eta, jakina, familia-giro ona, non harremanak maitasunean eta afektuan oinarritzen diren. Ezinbestekoa da komunikazio eta konfiantza ona izatea, haurtzarotik ohitura osasungarriak eta arau eta muga argiak, egokiak eta errazak ezartzea, prebentziorako lagungarriak izango dira-eta.

- Garrantzitsua da gure seme-alabei kalitatezko denbora eskaintzea, eta gure benetako interesa erakustea egiten dutenarekiko, gustatzen zaienarekiko edo kezkatzen dituenarekiko; baita haien ingurunea ezagutzea eta haien lagunekin modu naturalean harremanetan jartzea ere.

Ez dago errezeta magikorik, bidezidorririk, ezta guraso perfekturik ere, baina gure ereduarekin seme-alabak osasuntsu izan daitezen lagundu dezakegu.


**Ana Gonzalez Gil**  
Esku-hartze komunitarioko teknikaria





# “Active Parks”, parke osasungarriak dinamizatzeko aplikazioa

Telefono mugikorretarako aplikazio honen bidez, kalistenia-parkeen eta parke bio-osasungarrien instalazioak behar bezala eta gure beharretara egokituta erabili ahal izango ditugu; aukera emango digu helburuak ezartzeko, gure urratsak zenbatzeko eta inguruko parkeen kokapena eta instalazioak ezagutzeko.



Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzua-  
ren helburuetako bat Txorierriko herri-  
tarren artean jarduera fisikoa bultzatzea  
eta bitzta sedentarioa murriztea da. Pan-  
demiak aire zabaleko jarduera fisikoaren

praktika areagotzera eraman gintuen  
eta honegatik, oso interesgarria iruditu  
zitzaigun udalerrri bakoitzeko biztanleek  
dituzten baliabide publiko eta doakoen  
sustapen aktiboa egitea.

Horien artean Txorierriko zenbait  
udalerritako parke bio-osasungarriak  
eta kalistenia parkeak daude; bertan in-  
stalaturako makina eta aparatuek edozein  
adinetako pertsonentzako espazio ire-  
kietan kirola egitea errazten dute. Active  
Parks aplikazioak ariketa fisikoa modu  
malgu, egituratu eta gidatuan egiteko  
aukera ematen du, horrelako espazioen  
digitalizazioaren bidez.

Aplikazioa doakoa da, behin deskar-  
gatuta eta erregistroa eginda, interesdunek  
aukera dute Txorierriko digitalizatutako  
parkeak eta instalazioak kontsultatzeko.  
Gainera, tutoretza-bideoen bidez, makina  
edo instalazio bakoitzaren erabilera  
seguru eta zuzenerako jarduera gidatuak  
egiteko modua izango dute, baita euren  
aktibitateak planifikatzeko eta asteko  
helburuak markatzeko ere, egindako  
ariketaren erregistro bat eginez.

Ikasturte honetan zehar, aplikazioa  
erabiliz, klase gidatuak egingo dira in-  
stitutuko ikasleekin, haien beharretara eta  
lehenetasunetara egokituta. Aldi berean,  
teknologia berrien erabilera txarra eta  
horiek sendentarisimoarekin duten harre-  
mana landu nahi dira.

## Gurot txapelketa martxan!

GUROT programa informatikoak (12-  
17 urteko gazteei zuzenduta dagoenak),  
taldeen arteko lehiaketa abian jarri du  
udazken honetan. Horretarako, hiru lagu-  
nez osatutako klanak sortu behar dira,  
jolastu eta puntuak irabazi taldearentzat.  
Puntu gehien lortzen dituzten Txorierriko  
bi taldeek Bilbon egingo den Bizkaiko  
final handian hartuko dute parte. Anima-  
tu eta jolastu!

-IZEN-EMATEA: azaroaren 8ra arte.  
-LEHIAKETA: azaroaren 8tik aben-  
duaren 8ra.  
-FINAL HANDIA: abenduaren 20an  
Bilbon, eskualde bakoitzeko bi talde  
onenekin.  
-Gainera, Txorierriko bi talde onene-  
tako jokalariek TABLET BANA jasoko  
dute.



# Hobeto, baina ez espero bezain beste

Urriaren 5ean, Eusko Jaurlaritzaren LABI aholkularitza-kontseiluak koronabirusaren inguruko neurriak arintzea erabaki zuen. Euskal Herrira normaltasunetik hurbil dago; eta horrek eragina izango du gure merkataritzan. Amairu Zamudioko taberna, Derioko Baserri Antzokia eta IZ ile-apaindegia bisitatu ditugu, euren iritzia jasotzeko.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Ostalaritzan, beste irizpide batzuk sartu dira indarrean: pandemiaren aurreko ordutegia berreskuratu egin da, tabernaren barruan zutik jateko eta edateko aukera dago... "Barraren esparrua berreskuratzea zoragarria da: barrak giro polita sortzen du, harreman zuzenagoa duzu bezeroarekin, tabernaren edukiera handitu egiten du..."; esan digu Maite Zamudioko Amairu tabernaren jabeak. "Azken hilabeteotan kostatu egin zaigu araudi berrira egokitzea eta orain ere denbora beharko dugu, baina pozik gaude", adierazi du tabernariak. Bere esanetan, jendeak gorriak ikusi ditu, askok enplegu-espeditante erregulazioak izan dituztelako, eta "hori gertatzen denean, ez diozu jateari uzten, tabernara joateari baizik".

Maite baikor agertu da, "gehienok txertoa hartu dugulako". "Maskara luzaroan jantzi beharko dugu, baina aurrera goaz eta lan egiteko gogoia dugu". Bezeroak ere pozik azaldu dira LABIk hartutako neurriekin. "Lehen ondo geunden, mahaietan eserita; eta hemendik aurrera ere ibiliko gara gustura, barran. Nik ez dut tabernan maskara kenduko eta, ahal izanez gero, kanpoan hartuko dut edaria, baina barran egotea ere pozgarria da", aipatu digu bezero batek.

## Baserri Antzokia

Gorka Urrutia eta Janire Alfonso Baserri Antzokiko tabernaren jabeak, ordea,

*"Barra berreskuratzea zoragarria da: giroa sortzen du, harreman zuzenagoa duzu bezeroarekin..."*



Ixone Zabala, IZ ile-apaindegian

ez dira hain baikorrak. Lege berria ezarri eta astebete beranduago egin dugu berba eurekin eta, haien esanetan, aldaketa handirik ez dute sumatu. "Askotan esaten da jendea oraindik beldur dela, baina

gure bezeroak, batez ere gazteak, ez dira beldur. Hala ere, ohitura aldatu egin behar izango dute: pandemian gauzak era batean egin behar izan dira: maskara, gela, edukiera, talde-kopurua

*"Murrizketak zeudenean itxaropentsu geunden etorkizunari begira, baina gaur egun ez dugu hain argi ikusten"*

*"Bezeroak sarriago etortzen dira. Argia ikusten da tunelean, hor urrunean (kar, kar)"*

eta ordutegia mugatua, edaria jazarrita hartu...”, aipatu dute.

Orain, aldiz, muga asko desagertu egin dira eta egoera berrira egokitzeke denbora behar da. "Adibide bat jarriko dizut: legea arindu eta astebe beranduago, kontzertu bat antolatu genuen eta bakarrik 15 lagun etorri ziren hori zuzenean ikustera. Eta guk dakigula, Bilboko Kafe Antzokian gauza antzeko bat gertatu da azken egunotan. Murrizketak zeudenean, itxaropentsu agertzen ginen etorkizunari begira. Pentsatzen genuen jendeak irteteko gogoia izango zuela. Hala ere, gaur egun ez dugu hain argi ikusten".


### IZ ile-apaindegia

Ile-apaindegia abenduaren 2018an ireki zen eta negozioa erabat finkatuta ez zegoela pandemia etorri zen. "Pandemia gogorra izan da, batez ere ezer ez genekielako: zelan jokatu, zelango segurtasun-neurriak ezarri.... Guztiok moduan, segurtasun-neurriak ezarri genituen eta horien aurrean jendeak oso jarrera ona adierazi zuen. Egia da batik bat nagusiak beldur izan direla, baina apurka-apurka ikara gaintzen dabilta; bezero fidelak ditugu", esan digu Ixone Zabala jabeak. Ile-apaindegian denetariko bezeroak hartzen dituzte: gazteak eta nagusiak, emakumezkoak eta gizonezkoak. Ohiko zerbitzuak eskaintzen zaizkie: ilea moztu, kolorea eman, tratamenduak... Estetika tratamenduak ere ematen dituzte.

Neurriak arindu egin dira, eta hori "pozgarria" da, Zabalaren esanetan, baina lan egiteko era ez dute gehiegi ile-apaindegi horretan aldatu. Hala ere, jendea "lasaiago" hurbiltzen da IZra. "Bezeroak sarriago etortzen dira. Gainera, ekitaldi bereziak berriro jarri dira martxan eta horiek ere ekartzen digute onura: jaun-hartzeak, ezkontzak... Ondo ikusten dut etorkizuna, jendeak kalera irteteko gogoia du, eta horretarako txukuntzeko joera du. Argia ikusten da tunelean, hor urrunean".



Maite, Amairu tabernan, bezero batekin



Gorka Urrutia eta Janire Alfonso, Baserri Antzokian

ZAMUDION BERTAN GAUDE

**BAIRES**  
Higienizazioa eta ingurumen-garbitza

Alberto Gainza:  
691606715

contacto@baires.es  
www.baires.es

sarraila-denda  
**Txorierri**  
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNIAN

946 038 663  
625 100 800  
info@cearrajeriatxorierri.com  
www.cearrajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate  
Urkiola, 4 lortza  
48160 Deno



## Urrezko dantzariak

HIRU BAT DANTZA TALDEA | 50 urte

Hiru Bat Zamudioko dantza-taldeak mende erdia bete du eta urteurrena handitasunez ospatu zuten urriaren 23an. Herriko balkoiak-eta apaindu ziren ospakizun-ekitaldirako, eta taldearen ibilbidea jasotzen zuen argazki-erakusketa ikusgai ipini zen tabernetan. Dantza-taldearen dantzariak eta monitorea dira Txaro Mugarra Arrien, Blanka Aurtenetxe Lasa eta Ainhoa Bilbao Goiri. Taldearen hasierak errepatatzeaz gainera, gaur egungo egoeraz eta etorkizunaz hitz egin dugu haiekin.

*t: I. Marina / a: Hiru Bat eta Aitor Petralanda*

Kontatu digutenez, dantza-taldea Joseba Petralanda Atxutegik eta Mugarrak ipini zuten martxan. "Aurretik beste dantza-talde bat egon zen herrian, baina desagertu egin zen. Talde horren izena hartu, eta gaur egungoa sortu genuen. Josebak mutilei irakasten zien, eta nik, neskei. Hogeita lau umerekin-edo hasi ginen. Joseba eta biok dantzariak izan gara beti, txiki-txikitatik, eta euskal kulturari eta ohiturei

eutsi nahi genien, abertzaletasun-sentimenduari".

Taldea sortu zen berria ahoz aho zabaldu zen eta dantzarien kopurua pixkanaka-pixkanaka hasi zen handitzen. "Neskok elizpean egiten genituen entseguak, eta mutilek, parrokiako lonjan. Entseguak arratsaldeko 4etan izaten ziren eta haien ostean arratsaldeko 5etako mezetara joaten ginen. Gantxoa-edo ziren (kar-kar)". Elizpetik kiroldegira joan ziren, eta handik Kultur Etxera (eskola

zaharrak). Gaur egun, Kultur Etxearen ingurua birmoldatzeko lanak direla eta, eskolako patioan entseatzeko dute; hango gimnasioa eta gela bat ere badituzte eskura, eguraldi txarra eginez gero. Entseguak bariku arratsaldean egiten dituzte.

Urte batzuetan, Zamudioko eta Txorierriko beste herri batzuetako dantzariak egon dira taldean, baina azken urteetan dantzari guztiak zamudioztarrak dira. "Ehun eta hemeretzi dantzari ditugu. Dantzarien kopuruari dagokionez, go-



Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



MAILA GUZTIAK (A1-A2-B1-B2-C1)

GOIZEZ EDO ARRATSALDEZ

10 / 7,5 / 6 / 4 ORDU

DEITU ETA INFORMA ZAITEZ!



# EUSKARAZ

ZABALDU 2021-2022  
AUKERAK

Herriko Plaza, 3 - DERIO Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38 [euskaltegia@txorierrin.eus](mailto:euskaltegia@txorierrin.eus)



Dantza-taldearen 30. urteurrena ospatzeko ekitaldia erabat arrakastatsua izan zen duela 20 urte, eta 50. urtebetetzea ospatzeko ekitaldi-multzoak ere agerian utzi du Hiru Bat dantza-taldea sasoi onean dagoela eta herriaren babesa duela. Azaroaren 23an, goiz-goiz hasi ziren ospakizun-ekintzak. Gazte Elai taldeko txistulariek, Bertokoko trikitilariek eta zanpantzarrek lagunduta, dantzariak kalejiran irten ziren eskolaraino eta bertan dantzen agerraldia egin zuten lehengo eta gaur egungo dantzariak. Herri-bazkarian 530 lagun batu ziren eta haren ostean Tio Teronen Semeak taldearen ikuskizunaz gozatu zuten.

## Festa

Eguna biribiltzeko, erromeria egon zen Luhartz taldearen eskutik.

“Ederra, hunkigarria, negarra, poza, jende pilo bat...”. Hiru Bat dantza-taldekoek hitz horiek erabili dituzte 50. urteurrenari lotutako ospakizun-egunean bizi izandakoa adierazteko. Izan ere, eguraldia ez ezik zamudioztarrak eta Txorierriko beste herri batzuetako lagunak ere izan zituzten lagun egun horretan. “Bazkarian batutakoez gainera, herritar gehiago hurbildu ziren egunean zehar antolatutako ekitaldietara, eta, egia esan, dena uste baino askoz hobeto atera zen. Poz-pozik gaude”.

Era berean, dantzariak azpimarratu dute ospakizun-eguna baino aurreko egunetan herritarrek erakutsitako atxikimendua. “Balkoiak apaindu dituzte, dotore-dotore, tabernak, dendak... Hori ere oso polita eta hunkigarria izan da. Itzela”. Bestalde, Bizkaiko Dantzarien Biltzarreko ordezkariak ere hurbildu ziren Zamudio eta presidentek oroigarri bat eman zuten urteurrena ospatzeko. Hainbeste esker on, maitasun eta babes sentituta, dantzari zamudioztarrei beste 50 urte gehiago betetzeko gogoia piztu zaie, ziur asko. Zorionak!

rabeherak egon dira, batez ere mutilen taldean: futbola dela eta, pilota dela eta... Inoiz mutil-dantzaren bat falta izan arren, beti izan dugu gutxienez mutilen talde bat. Bueno, eta mutilen talde bi ere izan genituen lehen aldian... Hori bai poza! Ondo gaude gaur egun, taldean 31 mutil ditugu eta. Nesken taldeek, bestalde, beti egin dute gora”.

Hiru dantzarien ustez, herriko ume eta gaztetxoak erakartzea eta hainbeste urte bete izana dira lana ondo egitearen ondorioak. “Plazan ez ezik, herriko jai guztietan eta ermitetan ibili gara. Lotu barik jarraitu dugu lanean eta antolakuntza ona ere izan dugu. Gainera, denetariko jendea egon da gurean, eta arazorik ez. Garai batean, txangoak eta guzti egiten genituen Euskal Herriko txokoak ezagutzeko. Oso arrakastatsuak izaten ziren, orain ez bezala, garai hartan bidaiatzeko aukera edo modu gutxi zegoelako; aukera berriak zabaldu ziren gero, eta txangoak antolatzeari utzi genion”. Herritar guztientzako ikastaroak ere antolatzen dituzte. “Jende dezente batzen da. Jota, Arin-arin dantza, korroenak... irakatsi ditugu jendeak jaietan parte hartzeko edota gurekin dantzatzeko”.

Momentu batean edo bestean kili-kolo ibili badira ere, garai txarrak gainditzeko gauza izan dira. “Nahiko monitore ditugu: lau mutilenak eta bederatzi neskena. Lehen, taldeek eta dantzariok batak bestearengandik ikasten genituen dantzak; orain aukera gehiago daude leku batera edo bestera ikastera

joateko. Federazioak ere ikastaroak antolatzen ditu”. Edozelan ere, ez dute argi etorkizunean monitoreak ordezkatzeko lagun nahikorik egongo den. “Guk edade bat dugu eta ez gara taldean betiko egongo. Bizitza aldatu da eta gaur egungo gazteek beste lehentasun batzuk dituzte. Gainera, kontuan hartu behar da gure monitoreek ez dutela euren lanaren truke sosik ere jasotzen. Are gehiago, dantzak irakasteaz gainera, administrazio-kontuez ere arduratu behar da”.

### Herria girotu

Zamudioko Udalak dirulaguntza ematen die, eta lehen ezkontzetan ere dantzatzen zuten dirua lortzeko. “Baina



*“Entseguak arratsaldeko 4etan izaten ziren, eta haien ostean, mezetara. Gantxoa-edo ziren (kar-kar)”*

*“Ehun eta hemeretzi dantzari ditugu: 88 neska eta 31 mutil; eta 13 monitore”*

**ZATOZ GU EZAGUTZERA!**

**Bisita pertsonalizatuak ikasturte osoan zehar**

**Aurrez izena eman behar da**  
idazkaria@eguzkibegi.net  
944560264

Hezkuntza eskaintza 0-16 urte

Ikastolenkartea NIVa KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

utzi dugu, lan handia ekartzen duelako. Beste herri batzuetara ere joan gara dantza egitera, ermitetako jaietara...". Saio horietan irabazitako diruari esker joan ziren apurka-apurka arropa eta materiala erosten. "Txikiek euren arropa erosi behar dute, baina taldeak baditu dantzari nagusiagoentzako jantziak, gonak, materiala... eta erabili ditzakete".

Herriko gainerako elkarteek antolatu dituzten ekintzetan ere hartzen dute parte, esaterako Lagatzu Egunean, eta euren ekarpena egiten dute herria girotzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko. "Baten batek esan digu dantza-taldeari esker duela lagun-taldea. Eta egia da: herritarrek elkar ezagutzen dute, hainbat belaunalditako lagunak ere bai, eta koadrilak ere sortzen dira. Hori guztia oso inportantea da herrian".

Euskal kulturari eta ohiturei eusteko asmoa zutela sortu zuten Hiru Bat dantza taldea, eta asmo horri eusten jarraitzen dute. "Guk egunero-egunero egiten dugu aurrera, astiro-astiro. Indarrak 50. urteurrena ospatzeko ekitaldian batu ondoren, hurrengo ekintza abenduaren 18an egingo dugu kiroldegian, gurasoei eta herriari erakusteko aurten zer egin dugun. Beste aldetik, Bizkaiko Dantzarien Eguna 2022ko maiatzaren 15ean izango da Zamudion eta ilusio handia dugu. 2020an bertan ospatzekoa zen, baina pandemia dela-eta bertan behera utzi behar izan zen; aurten ere ezin izan da egin. Gogotsu gabiltza".

*"Taldeari esker herritarrek elkar ezagutzen dute eta koadrilak ere sortzen dira; inportantea da hori"*



Kontatu digute entzun dutela pandemiak dantza-talde batzuk desagertzea ekarri lezakeela. "Jendea kostatzen zaiolako martxa berriro hartzea". Zamudiokoek iazko udazkenean berrartu zituzten entseguak, gutxika-gutxika, maskara erabiltuta eta osasun- eta

segurtasun- neurriei eutsita. "Nahiz eta pandemiaren eraginez ia urtebete geldirik egon, gu ondo gaude, jendea ondo erantzun du eta. Egia esan, presio apur bat dugu atzetik, badirelako bi ikasturte lau urteko umerik hartzen ez dugula. Gurasoak galdezka dabilta eta, beharbada, orain, urteurrenaren ospakizun-ekitaldia pasatu dela, ekingo diogu gai horri".

Hamaika anekdota daude 50 urtean, batez ere egiten zituzten txango horietan gertatutakoak, baina, badaezpada, hobe da horiek protagonisten gogoan geratu daitezela. Hala ere, dantzariak bereziki taldearen sortzaileak-eta euren lana ekarri dituzte gogora. "Joseba eta Txaro, haiek barik ez ginatekeelako hemen egongo. Lan handia egin dute".

*"Bizkaiko Dantzarien Eguna 2022ko maiatzaren 15ean izango da Zamudion eta ilusio handia dugu"*

**Iz**  
Txantxangorri, 2  
ZAMUDIO  
946 036 943  
Ile-apaindegia  
estetika

LIBURUDENDA PAPERDENDA  
**ZAMUDIO**  
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI  
Gorbea kalea, 5  
48170 ZAMUDIO  
Tlf. / Faxa:  
94 452 29 10

Arantza Amondarain Lasa  
Ginekologoa  
Txantxangorri, 2-4  
413. Bulegoa  
48100 Deba  
Txantxangorri eta Lasa  
94 454 44 58  
a.amondarain@arantza-lasa.com



Presumida Bravo, Sondika



Estitxu Perez, Zamudio



Esti Odriozola, Larrabetzu



Iratxe Pirla, Larrabetzu



## ZU ARGAZKILARI

Zure herriko txokorik ederrenei argazkia egin, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali.

Argazkiak hilero argitaratuko ditugu

Aikor! aldizkarian eta [www.aikor.eus](http://www.aikor.eus) webgunean.

**GAIA: UDAZKENA**

**PATXI**  
KOOP

IRAN KOOOPERATIBA ELKARTEA  
Nabizargazte - Tarnas 4, 48100 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 522 337 | [ir@paxi.koop](mailto:ir@paxi.koop) | [www.paxi.koop](http://www.paxi.koop)

**ZAMUDIO**  
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
[josuastorkiza@gmail.com](mailto:josuastorkiza@gmail.com)

L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)  
946 522 857

**OAKLAND**  
ENGLISH



## Bikaintasunaren bila European

Larrabetzuko eskola Erasmus+ egitasmoaren barruan dago eta horri lotuta bidaiia egingo dute Europako zenbait ikastetxetara, STEAM metodoari buruz gehiago ikasteko. Metodo horrek ikuspegi integratzailea du eta ikasleek zientzian interes handiagoa izatea dakar, teknologian, ingeniartzan, arteetan eta matematikan. Lehen bidaiia Frantziara egin dute, Void-Vacon herriko Ecole élémentaire publique Du Petit Ruisseau eskolara hain zuzen.

*t Itxaso Marina / a: Larrabetzuko eskola*

Deiene Iturregi Lekue Larrabetzuko eskola zuzendaria da. Azaldu digunez, orain arte gehienbat hizkuntzak eta hiru-eletasuna jorratu dituzte –esaterako, laugarren mailatik aurrera ikasleek ingelesez ikasten dute Zientzia-, eta orain STEAM metodoak barne hartzen dituen arloak sakonago lantzeko asmoa dute, eta irakasleak horietan trebatu. Erasmus+ egitasmoak aukera emango die ikusteko eta ikasteko Europako beste herri batzuetako ikastetxeetan esandako arloei zelan heltzen dieten. Horrela, bada, eskolako irakasleek “job shadowing”-a, hau da, ikusiz ikastea, eta beste ikastaro batzuk egingo dituzte. “Guztira 10 irakasleok hartuko dugu parte egitasmoan. Lau irakasle Frantzian

izan gara irailean, eta beste batzuk, ziur asko, Italiara joango dira robotikari buruzko ikastaro bat egitera. Europako hirugarren eskola bat ere bisitatuko da, baina oraindik ez dugu zehaztu nora joan”.

Iturregiren esanetan, oso egitasmo onuragarria da eskolarako, “beti da-goelako besteengandik zer ikasi”. Esan moduan, lehen bidaiia Frantziako Void-Vacon herriko eskola batera egin dute zuzendariak, aholkulariak, 6. Mailako tutore batek eta ingeles irakasle batek. “Egia esateko, haiek jo zuten guregana, teknologia berriei buruz gehiago ikasi nahi zutelako, eta pentsatu genuen elkartrukerako aukera ona izan zitekeela”. Hango lan egiteko modua ezagutzeaz gainera, esperientzia baliagarria ere izan da Larrabetzuko irakasleak konturatzeko

“bertan aurreratuago gaudela”. “Adibidez, Lehen Hezkuntzan guk ikasle adituak ditugu ingelesa emateko, musika, gorputz hezkuntza, pedagogia terapeutikoa... Han, berriz, tutoreak ematen ditu ikasgai guztiak. Gainera, ez dute ordu liberrik eskola-saioak prestatzeko. Eskolak emateko orduan, denetarik ikusi dugu: batzuk

***STEAM metodoak barne hartzen dituen arloak sakonago lantzeko asmoa dute, eta irakasleak horietan trebatu***



manipulazio-saioak izan dira, eta beste batzuk, antzina egiten ziren modukoak. Haur Hezkuntzako ikasleak beste eraikin batean daude, beste ikastetxe batean, eta, guk bezala, txokoak egiten dituzte". Aldeak ere nabaritu dituzte. "Hango ikasleek arretasun-maila handiagoa dute, baita autonomia handiagoa ere". Eta zer hobetu. "Hizkuntzei dagokienez, garrantzi handia ematen diote ahozotasunari; hemen gehiago idazten dugu eta ahozotasuna indartu beharko genuke".

#### Berriztatzaileak

Frantziako eskolako ordezkariak Larrazetako eskola bisitatzeke asmoa dute, baina oraindik ez dute zehaztu noiz. Larrazetako eskola, bestalde, duela urte bi aurkeztu zen Erasmus + egitasmoa eta, pandemiak programaren

datak atzeratzea ekarri duenez, 2022ko abendura arte dute bisitak eta ikastaroak egiteko aukera. Egitasmoan parte hartu ahal izateko, eskolako arduradunek euren helburuak zeintzuk diren argi zehaztu zituzten. Helburu horien artean hauek daude: irakasleek Europako prestakuntza-ikastaroak egitea, gaitasun berriak sustatzeko eta euren profila indartzeko; irakaskuntza-ikaskuntzan aurrera egitea, euren irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko; Europako komunitate zientifikoko etorkizuneko kideak sortzen laguntzea; metodologia berriztatzaileak eta motibatzaileak bilatzea, eskola-porrotari aurre egiteko; eta neskak STEAMeko ikasketetara bultzatzea.

"Irakasleok etengabeko prestakuntza-ren aldekoak gara eta aspalditik gabiltza prestakuntzan eta hobekuntzan murgilduta. Ordezkoak egitera etortzen direnak harritu egiten dira gure maila teknologikoa ikusita. Bikaintasunera heltzeko asmoa dugu eta, horretarako, beti gabiltza eskolan berrikuntzak sartzen". Erasmus+ egitasmoari esker ikasitakoa eta ikusitakoa eskolako gainerako irakasleekin partekatuko dute, ikasgeletan egiteko, irakasteko eta ikasteko modu berriztatzaileak ezartzeko. Esperientzia Txorierriko gainerako eskolekin ere partekatzeko asmoa dute.

*"Irakasleok etengabeko prestakuntzaren aldekoak gara eta aspalditik gabiltza hobekuntzan murgilduta"*



hotela  
jatetxea  
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefonoa: 94 403 69 00  
Faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com



Ursula\_psikologoa  
Psikologia & Neuropsikologia

Aurrez aurreko terapia  
Onlineko terapia

644 649 752  
ursula@cop.es  
Las Mercedes 31, 4., 3. bul. (Abra 3 erakina)  
48930 Areetta (Getxo)

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI  
ALBAITARITZA  
Elena Lombana (elk.553)  
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215  
10:00-14:00 / 18:00-19:00  
(hitzordua eskatu behar da)

Balio etikoetan oinarritutako ipuin-lehiaketa egin da Txorierriko Institutuan. Lehiaketa antolatzea otu zitzaion filosofia eta balio etikoak irakasten dituzten irakasleei, hurrengo hauek jorrazteko: sormena, empatia, autoestimua, introspektzioa eta idazmena. Lehiaketa DBHko lehenengo eta hirugarren mailetan egin da, lehenengo mailan bullyinga eta jazarpen-motak lantzen direlako, eta hirugarren mailan LGTBQ+ jorrazten delako. Gelako jarduera izan da eta ikasleek hiru eskola-saio izan dituzte istorioak pentsatzeko eta idazteko. Irabazleek diplomak eta Batxilergoko bigarren mailako ikasleek egindako poltsak jaso dituzte saritzat. Uztaileko alean eta hurrengoetan irabazleen ipuinak argitaratuko ditugu Aikor! aldizkarian

## Peru, amets bat zuen mutila

t: Deñe Rodríguez DBH1

Behin bazen 15 urteko mutiko bat, Peru izenekoa eta Bilbon jaiotakoa.

3º mailan zegoen eta ikastetxe pribatu batera zihoan. Ikastetxe horretan ez zuen lagun askorik. Berari hori ez zitzaion asko inporta, gehien inportatzen zitzaiona dantzatzea zelako. Ikasketetan ez zen oso ona.

Sofia eta Unai bikotekideak ziren eta Peruren klasera zihoazen. Sofiak eta Unai, Peruk dantzatzen zuenez, barre egiten zioten eta Peruri buruzko komentario txarrak esaten hasi ziren: "Ez daki dantza egiten, marikon..." Peruri komentario horiek ez zioten eragiten eta Peruk dantzatzen jarraitu zuen.

Peruk egun batean, bere dantzak ezagutzera eman nahi zituenez, bere amari baimena eskatu zion Instagrama instalatzeko mugikorrean. Bere amari idea ona iruditu zitzaion eta baimena eman zion. Oso lotsatia zenez, bere amak pentsatu zuen Instagramak lagunduko ziola lotsa horiek kentzen. Baina ez zen horrela izan, kontrakoa gertatu zen. Sofiak eta Unai Instagrama zuela konturatu zirenean, oso dibertigarria izango zela publikoan beraz barre egitea pentsatu zuten. Horrela pentsatu zuten Instagramen biok jarraitzaile gehiago

izango zituztela. Horrela hasi zen Peruren zoritxarra. Cyberbullying-a egin zioten. Bere entrenamendua igotzen hasi zen eta Sofia eta Unai bere bideoetan komentario iraingarriak jartzen hasi ziren "marikoa, pringado, neska ematen duzu..." eta institutuko lagunak gutxinaka-gutxinaka Sofia eta Unairen irainei "like" ematen hasi ziren.

Peruk gogor entrenatzen zuen eta asko hobetu zuen. Entrenatzaileak behien eta berriro esaten zion dantzari ona izatera helduko zela. Baina Instagrameko irainak afektatzen hasi ziren. Ez zuen ulertzen nola


*Instagrameko irainak afektatzen hasi ziren. Ez zuen ulertzen zergatik deitzen zioten "marikon, pringao..." egunero dantza egiteagatik*



**auzoKide**  
Finken administratzailea  
LORENA GAMBOA AGUIRRE  
Txorisolo 4, behea B 48150 SONDIKA  
634 410 470  
auzokidefincas@gmail.com

**Ford Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala  
Txorierrri et., 46  
48150 Sondika  
Bizkaia  
94 453 25 15  
94 453 39 31

**GALAISIA**  
Eiangabeko orduegia  
Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51  
Sabino Arana 1-3. SONDIKA



jendeak pentsatu ahal zuten Sofiak eta Unai bezala. Ez zuten ulertzen zergatik deitzen zioten "marikon, pringao..." egunero dantza egiteagatik bakarrik, ez zuelako futbolera jokatzeko.

Gutxinaka-gutxinaka Peruren animoak desagertzen joan ziren, ez zuten gogo berdinekin entrenatzen, kalera ia ez zen irtetzen eta eskolara ez joateko aitzakiak jartzen

hasi zen. Ez zituen bideoak Instagramera igotzen baina hala ere irainak jarraitzen zuten institutuko pasilloetatik joaten zenean.

Ahozko bulling horren aurrean ezin zuten ezer egin, ez zen ausartzen inori gertatzen zitzaiona kontatzen.

Entrenatzaileak bere jarrera arraro hori ikusita amarekin hitz egitea erabaki zuten. Amak ere zerbait arraroa gertatzen zitzaiola nabaritu zuen eta lagun batek gomendatuta Instagramera sartzea pentsatu zuen ea zerbait arraroa ikusten zuten hor. Negarrez hasi zen irainak ikustean. Ezin zuten sinetsi jendea horrela izan zitekeenik. Pentsatu gabe institutura joan zen zuzenean eta zuzendaritzan dana kontatu zuen.

Zuzendaritzak martxan jarri zuen zegoen protokoloa. Peruri laguntza psikologikoa jarri zioten eta Sofia eta Unairi merezi zuten zigorra. Alde batetik Peruri barkamena eskatu zioten egindako min guztiagatik eta bullingari buruzko kurtso batera joan behar izan ziren egin zuten minaz kontziente izateko, asko ikasi zuten kurtso hori egitean.

## Peruk ulertu zuen "diferentea" izatea txalotzeko moduko ezaugarria dela

"Like-ri" eman zioten institutuko ikasleak ere jaso zuten merezitako bronka eta bullingari buruzko hitzaldiak egin zituzten institutuan.

Laguntza psikologikoari esker Peruk ulertu zuen "diferentea" izatea ez dela zerbait arraroa eta lotsatzeko modukoa, baizik eta txalotzeko moduko ezaugarri bat dela.

Horrela Peruk dantzari profesionala izatera heldu zen eta gaur egun ekitaldiak egiten dituenean Sofia eta Unai publikoaren arden egoten dira bere laguna ikusten.

**TALDEA** **GURENA**  
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**ZURE NEURRIRA**



**BABESPEKO  
APARTAMENTUAK**  
600 euro  
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIK  
EGOITZEAN**  
egunean  
gauean  
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
**www.gurena.com**



# Txondorra piztu zen Larrabetzun

*t Itxaso Marina / a: Garbiñe Etxebarria*

Sabin Arana Loroñok izan zuen txondorra egiteko ideia eta egitasmora erakarri zituen Garbiñe Etxebarria Uriarte eta Txirri Lekue Jauregi. "Txondorra da, ikatza egiteko, egurra egosten den era bat", azaldu digute. "Zergatik Larrabetzun egin? Bada, bertan, garai batean, lau burdinola eta hiru errementari izan ziren eta lauzpabost mendetan larrabetzuarrak ikatza egiten ibili ziren burdinolak elikatzeke. Kintal bat burdin egiteko, 6-8 zama behar ziren eta basoetako egur gehiena ikatza egiteko erabiltzen zen. Beraz, zergatik ez gogoratu garai hura? Izan ere, egurra izateaz gainera, ikatza nola egin ikasi dugu".

Nolanahi ere, argi utzi dute egitasmoa folklore hutsetik haratago joan dela. "Folklore-zatia badu, baina oinarri sakona ere bai. Olagizonek ikatza behar zuten eta, hainbeste egur gastatu zenez, goietan ere zuhaitzak landatzen hasi ziren. Baina ganaduak zuhaitz txikiak jaten zituen eta kontrajarri egin ziren baseritarren interesak eta olagizonenak. Basoak herriarenak ziren garai hartan eta 1486an Bizkaiko Andrearengana,

*"Lauzpabost mendetan larrabetzuarrak ikatza egiten ibili ziren burdinolak elikatzeke"*

Mendeetan, ikatza bertoko zuhaitzen egurraz eraikitako txondorretatik atera dute euskaldunek. Ikatza egiteko modu tradizional hori gogora ekartzeko, txondorra piztu zen abuztuaren 1ean Larrabetzun, Ubiritxagako inguruan hain zuzen ere.

Isabel Katolikoarengana, jo zen basoak banatzeko baimena eman zezan. Hark baimena eman, eta herria administratzen zuen kontseiluak basoak banatu egin zituen herritarren artean. Ondorioz, bakoitzak bere lurra izan zuen eta, hortaz, ikatza eta diru-sarrera bat. Guztiak pozik. Iraultza izan zen".

Aranaren baserriko haritza erabili zuten txondorra egiteko, zazpi tona inguru.

"Adarrak 10 urtean behin moztu ohi dira eta aurtan inausketa egin behar zela aprobetxatu dugu. Urtarrilean hasi ginen adarrak moztzen eta ekainaren erdialdera arte izan genituen sikatzen, hezetasun apur bat galdu behar zuten eta. Ubiritxaga ingurura lagun batek eraman zituen traktorez, ekainaren amaieran-edo". Kontatu digute, erre barik, egurra egosi egin behar dela. "Bestela hautsa sortzen





da. Egosiz gero, koipea eta hezetasuna kentzen dira eta kaloriak dituen parterik onena gelditzen da; hau da, erabiltzeko onena”.

#### Egurrezkoa osorik

Egurra tamaina berean moztuta, egur-zatiak bata bestearen ondoan, eta bata bestearen gainean, ipini zituzten, ondo lotuta, harik eta txondorri forma eman zioten arte. Txondorra egurrezkoa zen oso-osorik. “Egurra behar moduan egosi ahal izateko, inportanteena da tximinia behar moduan ipintzea. Era berean, garrantzitsua da dena estanko egotea, oxigeno gehiagorik ez sartzeko: arnasa hartu behar da, baina gutxi. Horregatik tapatzen da orbelarekin eta lurrarekin; sokila ere erabili dugu”. Txondorri abuztuaren hasieran eman zioten sua. “Txingarra egin behar da, eta tximiniatik sartu. Gero egurrekin betetzen da. On-do zaindu behar da dena, txinpartarik ez

*“Txondorra 13 egunean  
egon zen martxan  
eta denbora osoan  
gutxienez pertsona bat  
egon zen hura jagoten”*

ateratzeko, eta, beharrezkoa bada, tiro edo zulotxo batzuk egin”.

Txondorriaren sustatzaileek herritarren laguntza izan zuten hura egiteko zein behin piztuta hura zaintzeko. “Txabola ere egin genuen eta gauero-gauero bi lagun-edo izan dira han lo egiten. Txabolari Pitxitxola ipini genion izen, proiektuan gurekin ibili eta maiatzean hil zen lagunaren omenez. Txondorra 13 egunean egon zen martxan eta denbora osoan gutxienez pertsona bat egon zen hura jagoten”. Txondorrez gutxi zekiten

eta, ezinbestez, asko ikasi behar izan dute. “Igantziko Andonik eta Azkoitiako Pellok asko lagundu digute, eta txondorra nola egin irakatsi. Txondorriaren eman genion egunean biak azaldu ziren Ubiritxagan eta lasaitasuna ekarri zigun biek han egoteak. Telefonoz ere izan gara haiekin harremanetan, galdetzeko funtzionamendu teknikoari buruz eta jakiteko zer egin behar genuen sua biziegia edo motelegia bazen”.

Poz-pozik esan digute *cum laude* atera dutela txondorra egiten. Ikatza parte-hartzaileen artean banatu dute, eta zati bat beste proiektu baterako gorde dute. Proiektu berri horretan Alberto Albarrek nahasi ditu. “Burdina sortzeko asmoa dugu. Horretarako, mea bila gabilta handik eta hemendik, ea mineral egokia topatzen dugun. Laba ere egin beharko dugu”. Etorkizunean egitasmo horren nondik norakoak ere kontatuko dizkigute.



Jensen Ambassador oheak 25 urte bete ditu. Ezagutu.



**SUIT DELUX**

Ohea aldatzen dizugu,  
bizitza hobetzen dizugu

**BILBO** Ledesma 32 | Tf. 944 145 875

**DERIO** Seminarioa | Tf. 944 545 147

**LEIOA** Av. Iparragirre 80 | Tf. 944 316 516

[www.suitdelux.com](http://www.suitdelux.com)

# Gure ateak zabalik daude komunitatearentzat

Emaus Gizarte Fundazioko PAI Bitartean eguneko zentroak artatzen ditu gizartetik kanpo dauden edo egon daitezkeen pertsonak; hala ere, inportantzia handia ematen die komunitate-lanari eta inguruko eragileekin harremanetan egoteari ere bai. Horregatik, derioztarren kultura- eta gizarte-jarduerak babesten ditu: adibidea da azken hilabeteotan egoitzan egin den pintura-tailerra.

*t: Belen, Eva, Idoia eta Maribel*

Pandemia dela eta, Derioko udal-tailerrak bertan behera geratu ziren 2020an, eta, bestalde, 2021ean institutuko lanak hasita, herriko lokalak eta leku publikoak ikasgelatzat erabili behar izan dira. Leku horietako batzuk dira lehen tailerrak eta ikastaroak emateko erabiltzen zirenak; esaterako, pintura-tailerra, zeinetan herritarrek hainbat teknika artistiko gogotsu ikasten baitzituzten. "Eskola-saioek ikasteko eta sortzeko aukera ematen digute, gure gaitasunetara eta gustuetara egokitzen dira eta edozein euskarritan margotu dezakegu: mihisean, paperean, egurrean... Grabatuak egin ditzakegu, edo jorratu akrilikoak, pastelak, collagea, birziklapena... uztartzen dituzten teknika mistoak", azaldu dute ikasleek.

Pandemiari lotutako murrizketen eraginez, tailerrak bertan behera utzi ziren 2020ko martxoan. Gainera, leku batetik besterako joan-etorriak mugatu ziren, baita talde berean elkartu ahal ziren lagunen kopurua ere, eta sozializatzeko oso modu gutxi egon ziren. Hortaz, eta institutuko lanak behar-beharrezkoak zirela kontuan hartuta, aukera gutxi izan ziren ikaste- eta sortze-momentuetarako eta ihesbideetarako; horiek ere behar-beharrezkoak. Batzuetan gertatzen diren kasualitate horietako baten ondorioz, tailerretako kide ohi batek Derioko PAI

*"Zuen lana ezagutzeko aukera eman diguzue, eta zenbait denbora-tarte zuekin partekatu"*



Bitarteeneko eguneko egoitzaren profesionalei azaldu ziren pintura-eskolei berriro ekitea inportantea zela ikasi ahal izateko eta momentuko egoera apur bat ahazteko (lan- eta osasun-arazoak...). Horrela, Emauseko instalazioak eskuzabal-tasunez erabiltzen hasi ziren pintura-tailerra egiteko. "Agintariek ezarritako neurri guztiak bete behar izan genituen: edukiera, musukoa, tenperatura hartzea, eskuak garbitzea... Era berean, eremu gorrian sartu ginen eta eskola-saioak bertan behera utzi behar izan genituen. Nolanahi ere, lankidetzaz horri esker, martxotik ekainera bitartean teknika berriak ikasi genituen, eta zenbait lan egin".

## Bizia

Esandako denbora-tartean, koadro txikiak egin dira teknika mistoa erabilita. Koadroak eskura genuen denborara eta



parte-hartzaileen gaitasun piktorikoetara egokitu ziren. Hori guztia tailerreko irakasleari esker egin genuen: bere ideiak partekatu zituen gurekin, errotuladore-tintarekin margotzeko teknika berriak irakatsi zizkigun eta cianotipiaren oinarriak azaldu zizkigun oportetan esperimendu ahal izateko. "Esperientzia laburra izan da, baina bizia, eta oso aproposa ikasteko, jendea ezagutzeko, gure sormena gartzeko eta apur bat erlaxatzeko. PAI Bitarteeneko eguneko zentroaren laguntza desinteresatua barik ezinezkoa izango zatekeen. Eskerrik asko zentroko profesional eta erabiltzaile guztiei: instalazioak uzteaz gainera, zuen lana ezagutzeko aukera eman diguzue, eta zenbait denbora-tarte zuekin partekatu. Eta batez ere etxean bagina bezala sentiarazi gaituzue. Oporren ostean ere guretzako lekua izan dezazuela espero dugu".



# Zainbelarra

Gure larreetan dago eta erraz antzean daiteke, hosto berdeetan nerbiazio zuzenak ditu eta. Erroseta-itxura du eta bere loreak, txikiak direnak, buru zilindriko baten gainean hazten dira. Lurzoru hezeetan erraz hazten da. Hiru mota daude: zainbelar edo plantain handia, zainbelar edo plantain erdia eta ezpata-plantaina. Hosto txikiak eta samurrak errezetak egiteko erabili daitezke, eta hosto handiak eta helduak, erabilera medizinalerako.

## Sukaldean

Jateko ona da, zapore apur bat mingotsa eta gazia duena. Zainbelar-patea egiteko, hosto txikiak edo ertainak batu, eta uretan garbituko ditugu ozpin-zurrusta batekin. Olibekin eta baratxuriarekin nahasiko ditugu eta iriabiagailuz txikituko dugu harik eta ore bat lortzen dugun arte. Azenarioa, pipita erreak... ere gehitu ahal ditugu. Patea ogipiletan igurtziko dugu, edo kalabazin gordinaren xerretan.

## Ezaugarri sendagarriak

Irakuzketa lasaigarriak egiteko: 10 g hosto 250 ml uretan sartu eta infusioa egingo dugu. Gaza bat edo kotoia ur horretan bustita garbitu ditzakegu begi gorrituak, zauri txikiak eta azalaren azkurak edo urtikariak. Bestalde, kataplasma leungarriak egiteko, hostoak ur apur batean txikituko ditugu oreka lortu arte. Azkurak eta erredurak arintzeko erabiltzen da, eta lehen, hemorroideek eragindako ondorezak ere bai. Lagungarria da azalaren hanturak tratatzeko eta azaleko ultzerak eta zauriak orbaintzeko.

## Erabilera kosmetikoak

Bere eraginak direla eta, ona da azal sentikorretarako edo hanturetarako. Zainbelar-olioak ezaugarri anti-

inflamatorioak ditu, eta azal atopikoa duten umeez erabili ahal dute. Fardelak eragindako narritadurak osatzeko erabili daiteke, baita hotzak sortutakoak ere. Olioa egiteko, beirazko poto handi batean 50 g zainbelar-hosto (sikuak eta txikituak) ipiniko dugu eta 250 g almendra-olio birjina gehituko dugu. Potoari estalkia ipiniko diogu eta aire zabalean utziko dugu, baina eguzkitik babestuta. Hamabost egunean egunero eragingo dugu. Oihalezko iragazki batek lagunduta iragaziko dugu eta beirazko flasko batean ontziratuko dugu. Zuzeneko argitik babestuko dugu.



t: Txiribita /  
a: wikipedia

## Landareak batzeko aholkuak

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badaira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

**GORBEIA MERTZERIA**



Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 855 90 06

R.P.S. 134/10

**OPTIKA IKUSLAN**



Arbolantxa kalea, 5; behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**Hortz-klinika**  
**IDOIA ZUBIETA**



Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-INGLANTZAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11 - 1. esk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

# Karbono dioxidoa jaten duten betaurreko jasangarriak

Energiaren prezioak gora eta gora egin duen egunetan agerian utzi da erregai fosilekiko dugun mendekotasuna. Bueno, hori eta energia elektrikoa saltzen diguten enpresa batzuen diruzalekeria ere bai. Baina, goazen harira: mendekotasun hori ez dago bakarrik energiari lotuta. Egin ezazue esperimentu hau: zeuen burura eta ingurura begiratu, eta plastikoak duten gauzak zenbatu. Asko dira, ezta? Bada, horiek gehienak egiteko ere erregai fosilak erabiltzen dira.

t: *Xabier Diaz*

Era askotako plastikoak<sup>(1)</sup> daude, gehienak petroliotik eratorriak: PVC, bakelita, nylon, PET... Plastikoak etorkizuna zirela esaten zen XX. mendean, eta egun erabiltzen ditugun gehienak mende horretan garatu ziren. Gauza guztiek bezala, plastikoek ere euren alde iluna dute: horiek egiteko, energia behar da; batzuk arriskutsuak dira osasunerako; eta degradatzeko denbora luzea behar izateaz gainera, askok ingurumena kutsatzen dute.

Bioplastikoak<sup>(2, 3)</sup> jatorri organikotik, batez ere landareetatik, eratorritzen dira. Bioplastikoak ekoizteko, karbono dioxido gutxiago isurtzen da eta landarak agortzen ez diren bitartean, haiek ere ez dira agortuko. Gainera, asko biodegradagarriak dira eta, hortaz, ingurumenari ekartzen dioten kaltea murrizten da. Hala ere, guztiak ez dira

berri onak: alde batetik, bioplastikoek oraindik ezin dute erabilera arrunteko plastiko asko ordezkatu; bestetik, beste plastikoenarekin alderatuta, euren ekoizpena nahiko garestia da; eta azkenik, zalantza etikoak daude landareak bioplastikoak sortzeko erabiltzearen inguruan, goseteei aurre egiteko baino.

Bioplastikoak karbono dioxidoarekiko neutroak direla esaten da batzuetan. Izan ere, haiek egiteko erabiltzen diren landareek fotosintesiaren bidez finkatzen dute karbono dioxidoa. Ondorioz, plastiko horien degradazioa edo konbustioa gertatzen denean, hartutakoa da berriz atmosferara botatzen dena. Nolanahi ere, esandakoa ez da guztiz-guztiz horrela, ekoizpenean eta garraioan energia kontsumitzen delako, eta gaur egun energia horren zatirik handiena erregai fosiletatik lortzen dugulako.

Polyhydroxybutyrateo<sup>(4)</sup> bioplastiko biodegradablea da. Polimero hura zenbait izaki bizidunek sortzen dute estres-egoeretan berotegi efektuko gasak –karbono dioxidoa eta metanoa– xurgatuta. Zergatik ez erabili bioplastiko hori? Bada, Kaliforniako Covalent<sup>(5, 6)</sup> enpresa hasi da egiten. Mikroorganismo batzuk eta energia berriztagarriak erabiliz, "AirCarbon" biomateriala lortu, eta bioplastiko eta biolarrua garatzen dituzte. Esandako materialez

egindako betaurrekoen armazoiak eta gailu digitaletarako zorroak saltzen hasiak dira, eta hori lehenengo urratsa baino ez dela diote. Produktua jasotzen duenean, hura benetan jasangarria den ziurtatzeko, erosleak mikroorganismoetatik bere etxeraino izandako eraldaketa eta energia-kontsumo guztien informazioa eskura dezake, eta informazio hori egia dela bermatzeko, *blockchain* bat erabiltzen da.

Ez dakit karbono dioxidoa harrapatuta egindako betaurrekoak modan jarriko ote diren, baina petrolioa agortu aurretik ingurumena eta geu zaintzen lagunduko diguten materialak behar ditugu; horretan ez dut zalantzarik.

*"Petrolioa agortu aurretik ingurumena eta geu zaintzen lagunduko diguten materialak behar ditugu"*

(1) Plastikoak, wikipedia, <https://labur.eus/plastikoak1>

(2) Bioplastikoak, wikipedia, <https://labur.eus/bioplastikoak2>

(3) Bioplastikoak eztabaidagai, Juan Jose Iruin, Elhuyar Aldizkaria, 2012/03/01 <https://labur.eus/bioplastikoak3>

(4) Polyhydroxybutyrateo (en), wikipedia, <https://labur.eus/bioplastikoak4>

(5) Covalent, <https://labur.eus/bioplastikoak5>

(6) Carbon-Capturing Sunglasses Offer a View of Fashion's Future, Alden Wicker, Wired, 2021/10/13 <https://labur.eus/bioplastikoak6>



Zesarren heriotza, Carl Theodor von Piloty (1865)



# Euskararen mendian grekoa da gailurra

t: Juan Luis Goikoetxea

Grekoa dira: protokolo, sinalefa, eta geranio hitzak; ez datoz euskarara ingelesetik, espainoletik edo frantsesetik. Euskara dira, eta grekotik hartu ditugu. Gauza bera egin dute ingelesak, frantsesak nahiz alemanek.

Kentzen badizkiozu euskarari grekozko hitzak, zer kenduko diozu? Mendiari gailurra; piramideari edo triangeluari erpina, trapezio bihurtuz, eta euskarari kultura izateko terminoak.

Gainera, grekoak izen ona eta prestigioa ematen ditu. Ez da maila bereko elea okulista eta oftalmologo; kailista eta podologo. Erroman Cesarrek herritarrekin eta soldaduekin latinez egiten zuen berba, baina bere ingurukoekin eta kultura

mundukoekin grekoz. Horrela agertu ziren Erromako inperioan hizkuntza maila bi: goikoa grekoa eta apala latina. Horiez gainera, baziren beste maila eta estiloak ere, baina denak grekoaren azpian, latina baino gorago zegoen-eta.

Horren harira dator Cesarrek Brutori esan ziona, honek azken aitzokada eman zionean:

–*καί σύ βρουτε τέκνον μου.*

Eta ez latinez:

–*Tu quoque, Brute, fili mi.*

Euskaraz esango genukeena:

–Zuk ere bai, Bruto, ene seme?

Hortik gora, irakurle, grekoek hizkuntza trebatua eta prestatua laga zигuten pentsamendurako. Grekoak Europako hizkuntza guztietan oso eragin handia eduki du.

Federiko Krutwig jakituria handikoak idatzi zuenez, "Europako kultura osoa Grezian sortua da, grekoek asmatu eta aurkitu dituzte gure kultura-modelo eta estruktura guztiak, bai literaturan, bai musikan, bai arkitekturan, bai filosofian; baita jakintzetan ere.

Euskal Herriko mitologia ere konturik garrantzizkoenetan Grezietatik etorria da, Tartalo eta lamiak etorkiz grekoak dira. Eta Euskal Herrian bezala beste europar herri guztietan ere bai".

Guk begiratuko bagenio Europako hizkuntzetako kultur hitzen tesauruari –tesauro grekotik dator–, laster ohartuko ginatke erdia baino gehiago grekoa dela, eta sintaxian eta morfologian ere bai.

Greziako iturritik edaten du ingelesak, espainolak, frantsesak nahiz euskaldunak. Iturri bereberek ura edaten dugu. Beraz, ez gara ingelesaren menpeko, ez espainolaren, ez frantsesaren. Erabil ditzagun grekozko berba euskaldunak. Izan gaitezen batera euskaldun eta unibertsal.

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
48196 Lezama

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**aldekone**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

–Especialitate guztiak zentro bakar batean  
–Aurrekontua duan  
–Especialitatea: umeak

Urte 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)


**GAMINIZ**  
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com


Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio · Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com



**SARRIKOLA**  
OGITEGIA

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

**TABERNA**  
**GAZTE**

Eguneko menuak  
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**LEJARRENE JATETXEA**  
Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 85 46



## Kalabazako eta ahuntz-gaztazko risottoa

a: carolinarice.com

### Osagaiak (lau lagunentzat):

- 300 g arroz (risottoa egiteko)
- Ahutz-gazta ondua (arraspatua)
- Edalontzi bat ardo zuri
- 180 g kalabaza (zuritua eta pipita barik)
- Litro 1 barazki-salda
- Tipulin handi bat
- Gurina (zopa-koilarakada bat)
- Oliba-orioa
- Gatza

### Prestatzeko modua:

Kalabaza dadotan txikituko dugu, eta tipula, mehe-mehe. Kazola batean ipiniko ditugu koilarakada bi oliba-olio eta beste koilarakada bat gurin. Bestalde, salda berotzen jarriko dugu. Kazolara kalabaza eta tipulina botako ditugu, eta su ertainean bigundu. Tipulina biguntzen denean,



arроза gehituko dugu eta minutu batean sueztituko dugu gainerako osagaiekin batera. Ondoren, ardo zuria bota, eta su ertainean lodituko dugu. Barazki-salda bero-bero dagoela, bi ontzikada salda bota, eta eragingo dugu. Arrozak salda xurgatu ahala gehituko dugu salda gehiago, betiere eragiteari utzi gabe. Beharrezkoa bada, gatza botako dugu. Arroza *al dente* dagoenean gehituko ditugu hiru zopa-koilarakada gazta. Ondo eragingo dugu gazta desegin arte. Nahi izanez gero, apaingarri moduan ipini ditzakegu kalabaza-zati bat (egosia) eta gazta-zati batzuk. Egin berria atera behar da mahaira.

## Azenario-tarta

a: pexels.com, Eva Elijas

### Osagaiak (lau lagunentzat):

- Azenario arraspatua (katilukada 2)
- 4 arrautza
- 300 g azukre
- 210 g irin
- Olio (kikara bat)
- Intxaur txikitua (1/2 kizarakada)
- Legamia (koilaratxokada 2)
- Gatz apur bat

- Kanela (koilaratxokada 2)
- 200 g gazta krematsu
- 1/2 gurin-barra
- 140 g azukre-hauts

### Prestatzeko modua:

Laba 180 gradutan berotuko dugu. Berotzen den bitartean, eta bizkotxo egiteko, arrautzak irabiatuko ditugu apartestura lortzen dugun arte. Ondoren gehituko ditugu azukrea, irina, legamia eta olio. Osagaiak ondo nahasiko ditugu ore homogenea eta pikor barik lortzeko. Eragiteri utzi gabe gehituko ditugu azenarioa, intxaurrak eta kanela. Orea labarako molde batera botako dugu (aurretik gurinaz igurtziko dugu) eta laban ordubete inguru izango dugu. Beste aldetik, gazta krematsua eta gurina ontzi batera botako ditugu estaldura egiteko. Osagaiak nahasten ditugun bitartean joango gara azukre-hautsa gehituz, pixkanaka-pixkanaka eta eragiteari utzi gabe. Eginda dagoenean, bizkotxo labatik aterako dugu eta estaldura zabalduko dugu haren gainean.



## Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu. a: [www.recrekids.com](http://www.recrekids.com)



## Gomendioak

### LITERATURA: NAGUSIAK

–*Bi neska miseria* aztertzen (Dakit argitaldaria), Txomin Peillen Karrikaburu.

–*Ezer ez da dirudiena* (Elkar), Maribel Aiertza Rementeria.

–*Ogia eta zirkua* (Erein), Irati Jimenez Uriarte. XXI. Miguel de Unamuno 2020-01.

### LITERATURA: GAZTEAK

–*Berta Berezi* (Erein), Edu Zelaieta Anta, Txabi Arnal Gil. Ilustratzailea: Álex Fernández Villanueva.

–*Jarraitu inurriari* (Harriet Ediciones), Unai Elorriaga Lopez de Letona. Ilustratzailea: Alex Orbe Ferreiro.

–*Letren jolaslekuan* (Ikaselkar), Yolanda Arrieta Malaxetxebarria. Ilustratzailea: Eider Eibar Zugazabeitia

–*Altxorraren bila* (Elkar), Maialen Alfaro. Ilustratzailea: Mayana Itoiz

## Sudokua

	1			7		
		2		9		1
				8	6	
9						3
	7	8			6	
1	3			4	2	8
	8			9		
2	6					4
4		1	2			

4	9	1	2	5	3	8	9	7
2	6	5	8	7	1	3	9	4
3	8	7	6	9	4	5	1	2
1	3	6	9	4	5	2	7	8
5	7	8	3	1	2	6	4	9
6	2	4	7	6	8	1	3	5
7	5	9	1	8	6	4	2	3
6	4	2	5	3	9	7	8	1
8	1	3	4	2	7	9	5	6

**PELUKERIA ESTETIKA**  
LARRABETZU



Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU  
Tel. 944 558 144

**ASTIKENEMOTOR**  
www.ASTIKENEMOTOR.com



DERIO - 946 451 781

**ArtileArtean**

Mungialde, 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
www.artileartean.com



## Erakusketak

### Sondika

- > "Munduko talderik onena", Carlos Ranedoren eta Tomas Ondarraren eskutik. Azaroaren 2tik 29ra, liburutegian.



## Hitzaldiak

### Zamudio

- > "Ondo bizi gutxi xahutuz". Azaroaren 6an, 19:30ean, Gaztestazioan.

### Larrabetzu

- > "Zuritasuna eta pribilegioa", Cony Carranzaren eta Itziar Gandariasen eskutik. Azaroaren 2an, 18:30etik 20:30era, Anguleri kultur etxean. Zutunik talde feministak antolatua.
- > Literaturaz Berbetan: Nerea Arrienen *Jende likidoa* lana. Azaroaren 18an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > "Indarkeria obstetrikoa", Estitxu Fernandezek eskutik. Azaroaren 24an, 18:30etik 20:30era, Anguleri kultur etxean.

## Ikastaroak / Tailerrak

### Sondika

- > Azaroaren 25aren harira: maskulinitate berriak, emakumeen ahalduntzea... Azaroaren 13an eta 20an, Gaztetxean.

### Zamudio

- > Autodefentsa feminista. Azaroaren 20an, 10:00etatik 14:00etara, hauek antolatua: Gaztestazioak, Zapata Gorriak taldeak eta Lagunandrek. Izena emateko azken eguna: azaroak 15. Azaroaren 25aren harira.
- > Argazkilaritza ikastaroa. Azaroaren 27an, goizez eta arratsaldean, eta 28an, goizez, Zamudiotarren. Derioko Argazki Taldeak eta IZAEK antolatua.

### Larrabetzu

- > "Gizonak parekidetasunerantz", Hiruki Larroxa kooperatibaren eskutik. Azaroaren 11n, 17:00etatik 20:00etara, Anguleri kultur etxean. Izena ematea: Angulerin, [liburutegia@larrabetzu.eus](mailto:liburutegia@larrabetzu.eus) helbide elektronikora idatzita edo 944 558 271 telefono-zenbakira deituta.
- > "Larrabetzu LGBT+ fobiari aurre egiten", 12 urtetik 16 urtera bitarteko gazteentzat. Azaroaren 19an, 17:30etik 20:30era, Anguleri kultur etxean. Izena ematea, Angulerin.

## Ikuskizunak

### Zamudio

- > Maite Franko ipuin-kontalaria: *Filomena Musugorri, errege*. Azaroaren 27an, 11:30ean, liburutegian. Azaroaren 25aren harira.

### Larrabetzu

- > Bizkargi dantza-taldearen urteurrena. Azaroaren 12an. Arratsaldean, umeentzako puzgarriak frontoian; iluntzean, Eingo talde plazan, eta ondoren, kanta-dantza-poteoa.
- > *Antama Pantahou* antzerkia, Bilboko Nazioarteko Txotxongilo jaialdiaren harira. Azaroaren 20an, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.

## Irteerak

### Lezama

- > Entziako mendilerroa, Gailur mendi-taldeak antolatua. Azaroaren 6an, 08:30ean, Herriko Plazan.
- > Albertia, Gailur mendi-taldeak eta gurasoen elkarteak antolatua. Azaroaren 21ean, 09:00etan, eskolan.

## Lehiaketak

### Sondika

- > Gabonetako postalak. Lanak aurkezteko azken eguna: abenduak 3. Informazio gehiago: [www.sondika.eus](http://www.sondika.eus).

## Kirola

### Zamudio

- > Jiu-jitsu Bilboko Opena. Azaroaren 14an, 09:00etan, kiroldegian.

### Larrabetzu

- > Pala txapelketa, Olarreta eta Zutuniken eskutik. Azaroaren 21ean, frontoian.

## Musika

### Sondika

- > Santa Zezilia. Azaroaren 21ean, 18:00etan, San Joan elizan. Parte-hartzaileak: Txuma Olagüe talde korala, Pentagrama kultura-elkartea, Txuma Olagüe abesbatza, Ipar Elaiak txistu-taldea eta Gorantzaileak dantza-tadea.

## Ospakizunak

### Sondika

- > San Martin. Azaroaren 11n, 12:00etan, meza eta ohorezko aureskua. Gorantzaileak eta Ipar Elaien taldeen eskutik. Ostean, Xabier trikitalaria.

## Bestelakoak

### Sondika

- > Ludoteken atea irekitzea. Azaroaren 8tik 12ra, 19:00etatik 20:00etara.

### Zamudio

- > Txarriboda, Lagunandre elkarteak antolatua. Azaroaren 6an, 14:30ean, Adintsuen Etxean.
- > Auto telegidatuen zirkuitua eta antzinako autoen erakusketa. Azaroaren 7an, Zamudio Racing elkarteak antolatua.
- > Bingoa, Adintsuen Etxeak antolatua. Azaroaren 11n, 18:00etan.

### Sondika

- > Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Elkarretaratzeak eta ekintzak, azaroaren 25ean.

Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
946 558 000 - 689 998 843 - [izpilen@gmail.com](mailto:izpilen@gmail.com)

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia  
Telefona: 94 453 14 57 - [yedrainterflora@hotmail.com](mailto:yedrainterflora@hotmail.com)

Construcciones-Reformas  
**IÑIGO BARCENA**  
Igeltserotza orokorra

Especializatea:  
Xafla-lanak  
Zoruak

☎ 944522910 - 665703312 - 652772016

# Txorierriko **BERBALAGUNAK**

**11 aukera euskara praktikatzeko!** Herrian - kalean - lagunekin - parkean - paseoan - kafetegian

**euskaraz amets**



**INFORMAZIOA ETA IZEN - EMATEA:** 635.75.35.95 edo txorierr.berbalaguna@gmail.com

**LAGUNTZAILEAK:**



Txorierra  
EUSKARA

**ANTOLATZAILEA:**



Txorierra  
EUSKARA

**BABESLEA:**





PROFESIONALEN MAKINAK, GUZTIENTZAT



BANATZAILE PREMIUN  
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín  
*Astikene*

Astikene industrialdea, Berezi 23C  
48160-Derio BIZKAIA  
Tel.: 944 540 652  688 633 197  
astikene@agrojardinastikene.com  
www.agrojardinastikene.com